

Kirola

Belauneko lesio baten ondorioz,
Egoitz Murgoiok ez du Munduko
Txapelketan parte hartuko > 19



Mallabiko familia baten etxe kaleratzea gerarazi du udalak > 4

Bitartekari lana egin du
udalak familia eta aseguru
etxearen artean, eta alde
biak ados jarri dira

Urtarrilaren 24an titulu ofizialeko betearazpenagatik Du-
rangoko epaitegian egitekoa zen enkantea bertan behera ge-
ratu da. Udalak familiagaz eta aseguru etxeagaz egindako
bitartekaritzaren ondorioz, akordio batera heldu dira. Ma-

llabiko Udalak prentsa oharrean etxe gabetzeen arazoari el-
karlanean irtenbidea bilatzeko dei egin die inplikaturako
eragile, instituzio eta norbanakoei. Gainera, abenduako udal-
batzarrean etxe gabetzeen inguruko mozioa onartu zuten.

Marisatsa, hamarkada bat ekologismoa bultzatzen



Bidezko merkataritza
eta elikagaiak natura
errespetatuz ekoiztea
bultzatzen du Durangoko
Marisatsa elkarteak. Produktu
ekologikoak eskuratzeko
lokala dute Alluitz kalean > 3

ZATOZ GURERA - INFORMA ZAITEZ

Euskadi

ISO 14001:2004
ISO 9001:2008

EREDU HIRUELEDUNA
MODELO TRILINGÜE
TRILINGUAL EDUCATION

HAUR HEZKU
1 2 3

LEHEN HEZKUNTZA

DBH

BATXILERGOAK

UNIBERTSITATEA

GOI MAILAKO
HEZKETA
ZIKLOAK

ADINAK

1 2 3 4 5

6 7 8 9 10 11

12 13 14 15

16 17

Jesuitak
Durango

Kurutziaga, 1 - 3 P.K. DURANGO Tel.: 94 681 00 50 Fax: 94 681 03 04 E-mail: sanjose@durangojesuitak.org

Abadiño > 8

Zelaieta oinezkoentzako
egokitzeko herri batzarrak

Durangaldea > 7

Aktibatu+ programa aurkeztu
dute, ingurumenaren alde

Durango > 2

Adiskidetasun mezua
Durangotik Montevideora

Iurreta > 10

Odi-Bakarreko langileek
akordio proposamena egin dute

Herririk herri

> DURANGO

Adiskidetasun mezua Durangotik Montevideora

Unai Basurko eta bere tripulazioak oroigarri bat eroango dute Montevideora, Durangoren izenean

> MARKEL ONAINDIA

Unai Basurko itsasgizona eta bere tripulazioa Durangoko Udaren mezulari izango dira euren abentura berrian. Udalak plaka oroigarri bat eman die, eta Montevideora eroango dute, Uruguai hiriburura. Bruno Mauricio Zabala kolonizatzaile durangarrak sortu zuen Montevideo, 1724an. Ekimenaren aurkezpenean, eguaztenean, Andoni Iruarizaga zinegotziak esan zuen adiskidetasun mezua bidali gura dutela. Zabalaren jaiotetxe aurrean batu ziren denak argazkia ateratzeko.

Basurko, Pakea Bizkaia proiektuaren gidaria da. Lehia utzi eta hezkuntza arloan murgildu zen Portugaleteko itsasgizona, eta ildo horretatik zuzentzen ditu bere azken abenturak. Beragaz batera ikasleak eroaten

ditu, eta horietako batzuk egon ziren Durangoko aurkezpenean. 2010ean Norvegiako ipar lurmuturrera eta 2011n Ternuara espedizioak egin ostean, hirugarren espedizioa 2012ko urriaren 7an irten zen, Antartikara heltzeko

Otsailaren 15ean Montevideora helduko dira; oroigarria emateko aprobetxatuko dute

asmoz. Otsailaren 15ean Montevideora helduko dira, eta Durangoko oroigarria emateko aprobetxatuko dute. Iker Basurko anaia eta proiektuaren garapen zuzendariak adierazi zuen bisitak in-



teres handia piztu duela Montevideon; konferentziak eta ekitaldiak egingo dituzte euskaldunak ailegatzean.

Olatuaren bila

Kepa Acero Getxoko surflaria ere espedizioan parte hartzen dabil orain. Antartikako olatu bat hartu gura du eta, lortuz gero, lehenengo europarra izango da hori egiten. Durangon egondako gazteak Ushuaian batuko zaizkie gero, eta Montevideotik pasatu ostean, etxerako buelta hartuko dute.



Goian eguazteneko aurkezpeneko irudia; behean, espedizioko une bat.

Iñigo Urkullu: “Aukera historiko baten aurrean gaude”

Urkullu lehendakariak trenbide zaharra eta garajea bisitatu zituen joan zen barikuan

> M. O.

Iñigo Urkullu lehendakariak Durangoko trenbide zaharra eta garajea bisitatu zituen joan zen barikuan, inguru horretako obrak zelán doazen ikusteko. Lursailak berreskuratzeko egi-

tasmo horrenganako konpromisoa berretsi zuen, eta Durangoren hiri eraldaketagaz lotu zuen: “Aspaldiko eskaera baten aurrean gaude; aukera historiko baten aurrean gaude”. Tren geltokia kenduta berreskuratu-

ko diren 60.000 metro karratuetatik 25.000 hiri-parkerako izango direla nabarmendu zuen.

Lehendakariak adierazi zuen erakundeen arteko koordinazioari eskerrak hasi zela proiektua *–Durango Operazioa* legez izendatua hasieran–, eta horretan berresten dela. Lopezen legealdian, EAJk eta PSE-EEK konpromiso eta borondate falta egotzi izan diote elkarri.

EAJk eta PSE-EEK konpromiso eta borondate falta egotzi izan diote elkarri

Egoera horren amaiera islatu gura izan zuen Urkulluk, Jose Luis Bilbao ahaldu nagusia eta Durangoko eta Iurretako alkateak bisitara gonbidatuz. Baina, oraindik ez dago argi lur gaineko obra zer erakundek finantzatuko duen.

Bildu eta Aralar, EAJri lanean hasteko eske

Bilduk eta Aralarrek geldi egotea leporatu diote EAJri; batzarrean ez zen eztabaidagairik egon

> M. O.

Martitzenean, ohiko udalbatzarren gai ordenean, puntu bi bakarrik zeuden: aurreko batzarren aktak onartzea, eta denboralearen ondorioz hartu diren neurrien berri ematea. Galdera eta eskaeren tartean, Bilduk eta Aralarrek geldirik egotea leporatu zioten EAJri. “Bederatzi urtean ez dut ikusi gai bako udalbatzarrik”, adierazi zuen Aralarreko Dani Maeztuk. Bilduko Arrate Elkorok jeltzaleen jarrera kritikatu zuen: “Badakigu gauza asko dagoela egiteko, baina ez daki-

gu gobernu taldea zertan dabilen. Mesedez, hasi lanean”. Eskaera bera ahotan hartu zuen Maeztuk.

Galderei, erantzunik ez

Hainbat batzarretan onartutako egitasmoak zer egoeratan dauden jakin gura izan zuten alderdi biek, ea aurrerapenik egon den edo ez. Adibidez, etxegabetzeen kontrako mozioa edota hondakin organikoak zelán batu aztertzeako prozesua. Gainera, Elkorok hainbat ordenantza ez betetzea egotzi zien jeltzaleei.

Bestalde, Maeztuk Landakoko igerilekuen obra garestitu izana ekarri zuen gogora: “Orain, txosten tekniko guztiak eskuetan ditugula, eskatuko al da erantzukizunik?”.

Bildu eta Aralarren galderei eta eskaerei ez zien erantzun gobernu taldeak.

Bildu eta Aralarren galderei eta eskaerei ez zien erantzun gobernu taldeak



Iñigo Urkullu, joan zen barikuko bisitaren une batean.

> DURANGO**Iñaki Soloeta** | Marisatsa elkarteko kidea

“Produktu ekologikoen inguruan nahasmen eta esnobismo handia dago”

Urtebete daroa Marisatsa elkarteak produktu ekologien lokalagaz Alluitz kalean; natura zainduz ekoizten diren produktuen aldeko apustua egin dute

> JONE GUENETXEA

Martitzen arratsaldean Marisatsako lokalak ateak zabaldu ditu. Elkarteko kideek asteke erostetarako egiteari ekin diote. Baserritar bat bere ortuko jeneroagaz osatutako otzarekin dator. Hau ez da ohiko denda bat. Elkarteko kideek produktu ekologikoak eskuratzeko zabaldua da. Elkartea 1999an sortu zuten Elorrioko Elorrixa ekologia taldearen laguntzagaz.

Azken urteotan produktu ekologikoen kontsumoa asko hazi da. Nabaritu al duzue elkartearen aldaketarik?

Lehen, produktu ekologiko batzuk topatzen zenituen herboristerietan, eta orain, denda espezializatuak zabaltzeaz gainera, supermerkatu handietan ere sail bereziak ipintzen dituzte. Duela 30 urte, inguruko baserritarri erosten genion esnea, eta dendetan edo plazan bertoko ortuariak erosteko aukera izaten genuen. Supermerkatu handiak zabaltzen joan dira, eta kalitateari baino gehiago begiratu diote diruari. Baserritar batzuk merkatu horretatik kanpo geratu ziren. Frantzia edo AEBetan, esaterako, ekologikoaren kontzeptua lantzen hasi ziren.

Zelan ulertzen duzu zuk produktu ekologikoen kontzeptua?

Produktu ekologikoen inguruan nahasmen eta esnobismo handia dago. Ezaugarri nagusi bi izan behar ditu: alde batetik, kontsumitzaileari natura errespetatzen duen produktu bat eskaintzea da. Bestetik, garrantzi-

tsua deritzogu inguruko ekoizleak zaintzeari, bai eta bidezko merkataritza defendatzeari ere.

Garestia al da produktu ekologikoen merkaturak?

Adibide bat jartzearen, arrautza ekologiko batzuk erosi gura badituzu, ekoizpenaren kostua ezin daiteke modu masiboan jarduten duten enpresa handiekin alderatu. Derrigor izan behar dute garestiago, ekoizpen prozesuak kostu handiagoa duelako. Hala ere, abusu handiak egin dituzte arlo honetan, ekologikoa elitismoagaz lotu gura izan baitute. Gure dendan bertako

“

Natura errespetatzen duen produktu bat eskaintzea eta bidezko merkataritza defendatzen ditugu”

ekoizleen frutak dendakoak baino merkeagoak dira, zuzenean erosten dizkiegularako. Laranja 1,50 euroan ditugu, eta sagarrak 1,80 euroan. Gainera, gure helburua ez denez dirua irabaztea, ateratzen dugun etekina eta ordaintzen dugun kuota, gastuak ordaintzeko dira.

Geroago eta ekoizle gehiago dago.

Espainiar estatua produktu ekologikoen ekoizle handiena da Europan, bai eta gutxien kontsumitzen duena ere. Produktzioa-

ren zatirik handiena esportatu egiten da. Ikerketa baten arabera, estatuan, %0,7k bakarrik daki zer den ekologikoa.

Zer ekintza antolatzen du Marisatsak?

Ekokontsumo federazioko kide gara. Elorrioko azoka ekologikoan parte hartzen dugu, eta Durangon ere antolatzen dugu. Plateruenean produktu ekologikoen dastaketa bat antolatu genuen, eta ikastaroak ere prestatzen ditugu lokalean.

Lokala zabalik:

Martitzenak, 18:00-21:00
Eguaztena, 11:00-13:00
eta 18:00-21:00
Eguena, 19:00-21:00
Zapatua, 11:00-13:00
marisatsa@gmail.com
Tel.: 94 620 32 15



Iñaki Soloeta, Marisatsa elkarteko kidea.



Alluitz kaleko lokalean bazkideek asteko erostetarako egiten dituzte.

R.P.S. 214/06

A. Urreta
podologo

Podologo 188. Elkargokidea

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • Durango
Tel./Faxa: 94 621 54 04

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
Bixente Kapanaga 19, behea - 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com
Elorrioren aukera onak

> MALLABIA

Udalak Mallabiko familia baten etxe kaleratzea gerarazi du

Urtarrilaren 24rako Durangoko epaitegian aurreikusita zegoen enkantea egitea

> JONE GUENETXEA

Prentsa ohar labur baten bidez, Mallabiko Udalak herrian egitekoa zen etxe kaleratze bat bertan behera geratu dela jakitera eman du. Azaldu dutenez, urtarrilaren 24an “titulu ofizialeko betearazpen” delakoagatik Durangoko epaitegian egitekoa zen enkantea bertan behera geratu da. Udalak familia eta aseguru etxearekin egindako bitartekaritzaren ondorioz, akordio batera heldu dira alde biak. Beraz, enkantea eta etxe kaleratzea bertan behera geratu dira.

Mallabiko Udalak etxe gabetzeen arazoari elkarlanean irtenbidea bilatzeko dei egin die

inplikaturako eragile, instituzio, eta norbanakoei. Udalaren berbetan, “Mallabiko kasuak erakusten du elkarrekin lan eginez irtenbidea eman ahal zaiola drama sozial berri honi”.

Etxe kaleratzeen mozioa

Etxe kaleratze kasu batean udalak bitartekari lana egin duen lehenengo aldia den arren, gai honen inguruan etxe gabetzei aurre egiteko protokoloa egitea onartu du. Abenduaren 27an udala osatzen duten bi alderdiek, Bilduk eta EAJk, aho batez onartu zuten mozioa. Bertan, banku, kutxa, kooperatiba eta batez ere, Kutxabanki etxe-ga-

betze denak bertan behera uzteko “exijitu” zuten, bai alokairu erregimenean bai jabetzan gertatzen diren kasuetan. Gainera, Mallabiko Udalak bere eskumeneko esparruan eta babes sozialerako indarrean dituen egitasmoetan etxe kaleratuei arreta berezia eskainiko diela jakitera eman du.

Udalak familia eta aseguru etxearekin egindako bitartekaritzagatik akordio batera iritsi dira alde biak



Udalak ez du eman etxe kaleratzearen inguruko ezelako datu pertsonalik.

> OTXANDIO

Aurrekontuak herritarrei azalduko dizkiete gaur

Aurtengo aurrekontu proposamena aurkeztuko du udalak gaur, 19:00etan, kultur etxean

> JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Udaleko 2013ko aurrekontuen proposamena azalduko dute udal ordezkariak gaur, urtarrilak 25, 19:00etan, kultur etxean.

Batzar horretan aurrekontuetako zehaztapen guztiak emango

Datorren eguaztenean, 20:00etan, aurrekontuak onartzeko udalbatzarra egin gura dute

dituzte, eta herritarrek euren dudak argitzeko aukera izango dute. Ondoren, datorren eguaztenean, 20:00etan, aurrekontuak onartzeko udalbatzarra egin gura dute.

Euskalgintza berbagai

Bestalde, Euskara Batzordeak antolatuta, datorren eguaztenean euskaltasunaz eta euskalgintzaz berba egiteko kafe-tertulia egingo dute bolalekuan, 18:30ean. Otxandion euskalgintza zelan landu eta belaunaldien arteko euskararen transmisioan zelan eragin aztertuko dute.

> ZALDIBAR

Abendutik erabilgarri dauzkate zaldibartarrek ariketarako makinak

9.500 euro inbertitu ditu udalak Olazarren ipini dituzten zazpi fitness aparatu berri horietan



Beroketarako zein ariketarako makinak dira.

> ITSASO ESTEBAN

Urte amaieran ipini zituzten ariketa fisikoa egiteko zazpi fitness aparatu Olazar futbol zelaiaren ondoan. Aurretik, futbol zelai zaharraren inguruko perimettoa atondu zuten hainbat herritarrek auzolanean, bertara korrika egitera joaten diren zaldibartarrentzat.

Abendutik, ariketa osagarriak egiteko aukera daukate kirolari zaldibartarrek, aparatu berriekin. Beroketarako zein ariketarako makinak erosteko, 9.500 euroko inbertsioa egin du Zaldibarko Udalak.

Adinekoek ariketa fisikoa egiteko makinak ipini zituzten Olazar frontoiaren sarreran, iaz, eta Arantza Baigorri alkatearen berbetan, oso harrera ona eduki dute aparatu horiek. “Eguraldiak oso txarra egiten duenean kenduta, beti dabil norbait aparatuetan ariketa egiten”.

•Haur Hezkuntza

•Lehen Hezkuntza

•Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

LEARRETA-MARKINA *eskola*

Learreta-Markina kalea z/g 48240 BERRIZ
94 682 43 44 - 014097aa@hezkuntza.net

IES BERRIZ BHI *BERRIZ*

Elizondo plaza 7A 48240 BERRIZ
94 682 49 62 - 015073aa@hezkuntza.net

Erdu Gurekin!!

📅 2 urtetik 16 urtera 📅 Jantokia eta garraioa
📅 Ikasleen eta gurasoen partaidetza bultzatuz

Berrizko euskal eskola publikoa

Aurrematrikula:
urtarrilaren 28tik
otsailaren 8ra

DURANGO

ERROTARITXUENA

Arriskurik gabeko aukera bat

Denbora ziurtatzen ari da

Egiazta ezazu!



%100 - raino finantzaketa

- Baldintzarik onenetan
- Idatziz bermatua

Sabadell Guipuzcoano



2 log. 204.000€-tik aurrera + BEZ

3 log. 268.000€-tik aurrera + BEZ



www.sukia.com
www.solvía.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

> ELORRIO

Ezkerrean, alemaniarrek Otadui eta Etxaburugaz; eskuman, Langer, Sahin, Westphal, Pranjic eta Romero.

Hogei alemaniar “etxean legez” egon dira Elorrion

Peine hiriko ikasleek Elorriko institutuko ikasleekin elkartrukea hasi dute

> MARKEL ONAINDIA

Alemaniaiko Peine hiriko hogei bat ikasle Elorrion egon dira astebe-
tebetz, eta hala, institutuko ikasleekin elkartrukea hasi dute. Martitzenean udaletxean hartu zituen Ana Otadui alkateak, eta hainbat galdera egin

Romero: “Beste kultura, pentsakera eta bizimodu bat ezagutzeko aukera eman die esperientziak”

zizkioten. Krisiaren eragina, independentzia nahia eta horren bideragarritasuna, herriko arkitektura... Elorriogaz interesatuta agertu ziren gazte alemaniarrek.

Michelle Pranjicen arabera, elorriarrek ondo hartu dituzte:

“Familiako beste kide bat legez sentitu naiz”. Pia Westphalek dio kultura desberdin bat ikusi dutela; jateko, adibidez: “Hemen oso berandu afaltzen da”. Carsten Langerrek etxean ezagutu zuen gaztelania, eta ez du komunikatzeko arazorik eduki: “Jendea oso jatorra da”. Ikasleak harrituta geratu dira hemengo irakasleei izenetik deitzeko ohituragaz, han abizenetik deitzen dituztelako eta *jaun* eta *andere* erabilia, gainera.

Aylin Sahin irakasleak azaldu du gaztelania praktikatzeari zela helburua: “Badaukate espe-

rientzia apur bat, baina oso desberdina da herrialdean bertan zaudenean”. Aukerako ikasgaien artean daukate gaztelania. Edozelan ere, ez zen asmo bakarra, bere lankide Paula Romero-
ren ustez: “Beste kultura, pentsakera zein bizimodu bat ezagutzeko aukera eman die esperientziak”. Josu Etxaburu institutuko zuzendariak antzekotasunak topatu ditu gauzak egiteko eta inplikatzeko moduan.

Elkartrukeak martxoan jarraituko du, elorriarrek Peinera joatean.

Zientzia eta teknologia praktikak kalera aterako dituzte ikasleek

Maristetako eta Lourdesko Ama ikastetxeko ikasleek hainbat esperimentu praktikan jarriko dituzte zapatu goizean, Elorriko plazan eta elizpean

> JONE GUENETXEA

Zientzia eta teknologia arloko ezagutza ez da liburuetan gertatzen den teoria hutsa. Eguneroko bizimoduan erabilgarri zai-
gula erakusteko, Durangoko Maristak eta Elorriko Lourdesko Ama ikastetxeetako ikasleek *Zuk ere egin ahal duzu* Zientzia eta Teknologia jardunaldia eratu dute zapatarako. Elorriko plazan eta elizpean jarri dute hitzordua, goizeko 10:00etatik 14:00etara.

Herritarrek zientzia eta teknologiara jakinminez hurreratzeko, ikasleek bitxikeriak azal-

Herritarrek zientzia eta teknologiara jakinminez hurreratzeko bitxikeriak azalduko dituzte

Bertaratzen diren eta parte hartzen duten guztiek otzara baten zozketan parte hartuko dute

duko dituzte. Praktika horien bitartez, zientzia eta teknologia edonork gozatu dezakeela erakutsi gura dutela azaldu dute antolatzaileek. Bertaratzen diren eta parte hartzen duten guztiek otzara baten zozketan parte hartuko dute.

Sei esperimentu jarriko dituzte martxan: musika eta bideo muntaia, sormen teknikak, mikroskopioen bidez zelulak aztertzea, Elorriko uraren analisisa, turbina baten funtzionamendua eta bere diseinua 3D-n eta eguzki panelak (nitrogeno likidoa, bizi-
kletak energia sortzaileak...).

diote lur zatia. Bilduren botoe-
kin onartu zuten plana. EAJk kontra bozkatu zuen: “Etxebizitzak Markoidara bideratu dituzue Lasuen enpresak eraiki ditzan”, arrazoitu zuten. Izan ere, hango lur zati bat Lasuenena da; “baina ez guztia”, gogoratu zuen Rosa Elizburu alkateak: “beste hainbat lurjabe ere egongo dira, udala tarteko”. Plana herri baztarretan eta herritarren ekarpenak jaso ostean osatu dutela ere adierazi zuen.

> ATXONDO

Hasierako onarpena jaso du hiri-antolamendurako planak

Markoidan bizilekuak eraikitzeke eta Artian industriagunea handitzeko aukerak jaso ditu

> JOSEBA DERTEANO

Asteleheneko udalbatzarrean Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari hasierako onarpena eman zioten. Zuzenketak aztertu ondoren, behin betiko onar-

tuko dute. Markoidan etxebizitzak eraikitzeke eremua aurreikusi dute. Industriadunari dagokionez, Artian orain dagoenaren parez pare, baina errepidearen beste aldean bideratu

> BERRIZ

Herriko dendeak kalera irtengo dute asteburuan

Euren jeneroa salduko dute zortzi merkatarik Olakueta frontoian, zapatuan eta domekan

> AMAIA UGALDE

Aukera Azoka antolatuko BME Berrizko Merkatarik Elkartek asteburu honetarako. Prezio baxuagoetan aterako dituzte salgaiak Olakueta frontoira. Umeen arropa, kirolak, estankoko materiala, janaria... Denetarik egongo da.

Saturnina Blanca BMEko kideak azaldu duenez, “herrian giroa sortzeko eguna” izan da azken urteotan azokakoa; “jaien ostean asteburua luza-
tzeko”. Jeneroa ateratzeko au-

kerak “oso aproposa” izaten dela nabarmendu dute merkatarien elkarteak, eta neguan horrelako azoka antolatzen duten hiru-
garren aldia da.

Zortzi merkatarik parte hartuko dute aurtengo azokan. Iazkoan hamar izan zirela azaldu du Blancak, eta urte honetan Berrizen komertzio bi zarratu dituztela gogorarazi du. Salmentetan beherakada igarri dute honetan, merkatarientzako eta kontsumitzaileentzako aukera izango da asteburukoa.

Olakuetatik Murgoitiorako bidea konpondu gura du udalak

Herriko sarrera horretan hainbat konponketa egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiari 500 metroko errepide zatia eskatu dio Berrizko Udalak. Bide zatia udalarena bihurtuta, errepideak egokitu gura dute, “segu-
ruagoa egiteko”. Orland Isoird alkateak azaldu duenez, oinez-

koentzako igarobideak egokitu eta zebrabide garaiak ipintzea da asmoa.

Olakuetako biribilgune-
tik Gomendio baserrirako bidea da udalak Aldundiari eskatu diona. Isoirdek nabarmendu duenez, “Elorriotik autoak abiadura handian etortzen dira sarri, eta trafikoa moteltzea ere bada helburua”. Horrez gainera, seinaleztapenak hobetuko dituzte, eta auzokideek kotxeak uzteko erabiltzen dituzten lekuetan aparkalekuak atondu gura ditu udalak.

> DURANGALDEA

Energia gutxituz, familien gastuak murriztu guran

Ingurumenaren alde era aktiboan parte hartzea sustatzeko programa aurkeztu dute: Aktibatu+

> MARKEL ONAINDIA

Aktibatu+ programa garatuko da Durangaldean ikasturte honetan, eta horren aurkezpena egin zuten atzo sustatzaileek. Herritarrek ingurumenaren alde era aktiboan parte hartu dezatela; hori da gura dutena. Eremu bitan garatuko da programa: familietan eta ikastetxeetan. Esate baterako, etxeetan energiaren

grama hori mundu mailako GAP ekimenaren baitan dago, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, Garbikerrek, Eroskik, Ur Partzuergoak eta Energiaren Euskal Erakundeak babesten dute. Durangaldean, Amankomunazgoaren eta udalen laguntza daukate garatzeko.

Hiru hilabeteko programa

Aktibatu+ programak hiru hilabete iraungo du etxe edo ikastetxe bakoitzeko. Lau ataletan banatzen dituzte ekintzak: ura, energia, erosketak eta mugikortasuna. Bizitzeko ohituren aldatetaren eraginez, honako emaitza hauek lortu ahal direla diote: energia eta ur kontsumoa %5 gutxitzea, CO2 emisioak %7 jaiste, eta hondakinen gaikako bilketarako edukiontzien erabilera %12 igotzea.

Besteak beste, internet bidezko galdetegiak orientatuko dituzte parte-hartzaileak. Programa doakoa dela azaldu dute, eta hainbat sarigaz zozketa egingo dute partaideen artean.

Lau ataletan banatzen dituzte ekintzak: ura, energia, erosketak eta mugikortasuna

eta uraren kontsumoak gutxitzea bultzatuko dute. Horrek, gainera, familien gastuak murriztea ekarriko du antolatzaileen arabera: “Etxeko gastuetan %10erainoko aurrezkoa lortu daiteke, ingurumena eta bizi-kalitatea hobetzeaz gainera”. Pro-

> MAÑARIA

Batukada taldea sortzeko batzarra egingo dute barikuan

Hainbat herritako ereduari jarraitu eta batukada taldea sortu gura dute Mañarian. Datorren barikuan, otsailaren 1ean, horretarako batzar informatiboa egingo dute Batzar Gelan. 18:00etan hasiko da.

Otsailaren 1ean horretarako batzar informatiboa egingo dute, 18:00etan

Bestalde, otsailaren 13an eta 20an makillajearen inguruko tailer bi eskainiko dituzte, eta dagoeneko badago apuntatzeko aukera. Liburutegian eman behar da izena, hilaren 31 baino lehen. Udaleko arduradunek adierazi dute doan direla ikastaro horiek.

> IZURTZA

Aldundiak baztertu egin du biribilgunea egiteko aukera

> JOSEBA DERTEANO

Joan zen abenduan Izurtzako alkate Luis Ballarinek batzarra egin zuen Aldundiko Errepide Saileko zuzendari Mikel Iriondogaz. Beste behin, herrigunetik igarotzen diren autoen gehiegizko abiadurari aurre egiteko gasolindegia ondoan (eta industrigunera-ko sarreran) biribilgunea egiteko beharrezana azaldu zion, besteak beste. Lurraldeko Zatikako Planean jasota dagoen biribilgunea ez dutela egingo erantzun zion Iriondok, finantziario arazoak direla eta. Ballarinen ustez, “borondate politikorik eza da benetako arrazoia”. Izan ere, errepide horretan “sei biribilgune egin dituzte, eta bat ere ez Izurtzan”.

Horren orde, seinaleztapea areagotzea eta gorune txikiak jartzea proposatu zuen Iriondok.



Aktibatu+ ekimenaren sustatzaileak, atzo, Behargintzaren egoitzan emandako prentsaurrekoan.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK.

“LANERAKO GAITASUNETAN TREBATZEKO, TALDE-LANEAN ETA PROIEKTUEN BITARTEZ IKASTEN DUGU.”

Unai Olaeta, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako 3.mailako ikaslea.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE • **OTSAILAK 2** larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI • **OTSAILAK 2** larunbata, 11:00

BIDASOA • **OTSAILAK 21** osteguna, 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA • **OTSAILAK 2** larunbata, 11:00

ARETXABALETA • **OTSAILAK 2** larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea-Basque Culinary Center

DONOSTIA • **OTSAILAK 14** osteguna, 18:00

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

> ABADIÑO

Irailera arte iraungo dute Zelaieta eskolan hasitako lanek

Gimnasio berria atondu, eta orain arte gimnasio izandakoa jantokia handitzeko erabiltzeko egingo dituzte obrak. Espazio arazoekin urtebete baino gehiago daramate Zelaietako herri eskolako jantokian, eta Eusko Jaurlaritzak lanak apirilean hasteko konpromisoa agertu arren, hainbat hilabete atzeratu egin da lanen hasiera.

Espazio arazoekin urtebete baino gehiago daramate Zelaieta herri eskolako jantokian

Jose Luis Navarro alkateak esan duenez, asteon hasi eta irailera arte iraungo dute obrek. Alkateak azaldu duenez, uda aprobetxatuko dute jantokia handitzeko lanak burutzeko. Gimnasioa, jantokia zein irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dituzte: igogailu berri bat egokituko dute.

Zelaieta oinezkoentzat egokitu beharragaz ados hiru alderdiak

Autoetarako eta oinezkoentzako guneak orekatu beharra ikusten dute udaleko hiru alderdiek

> ITSASO ESTEBAN

Abadiñoko Independentienteak taldeak proposatu, eta EAJ-ren abstentzioagaz onartu zuten 2012ko udal aurrekontuetan 1.100.000 euroko diru-atala gorde zuten Zelaieta auzoa oinezkoentzako egokitzeko. "Aspaldiko kontua da, eta urteak daramatzagu azterketa sakon bat egin behar dela esaten", dio Saioa Zuazubizkar Bilduko zinegotziak.

Udaleko hainbat batzorde-tan hiru alderdien oniritzia jaso du Zelaietako trafikoa eta oinezkoen guneak berdiseinatze-

ko egitasmoak. Auzoko kale, bide eta espaloien egungo egoeraren diagnostikoa egin eta herritarren iritzia jasotzeko parte-hartze prozesu bat diseinatu duen enpresarekin harremanetan ipini da, dagoeneko, udala. Herritarrek egitasmoari buruz duten iritzia jaso gura dute galdeketagaz.

"Zelaietako hainbat kale oinezkoengan pentsatuta diseinatu ziren, ez autoetarako, eta mugikortasun arazo asko eragin du horrek sarri", dio Eneko Etxebarria EAJko bozeroaleak. Auzoa berriro planifikatzea egoki ikusten du, horregatik, Etxebarriak, eta Zelaietako Alde Zaharra babesten lagunduko lukeela ere uste du, gainera jeltzaleen bozeroaleak.

Abadiñoko Udaleko hiru alderdiek (AIk, Bilduk eta EAJk), denek ikusi dute positibo gai honetan lortu duten elkarlana eta adostasuna.



2012ko aurrekontuan 1,1 milioi euro gorde zituzten proiektu honetarako.

Herriko gazteen premiak ezagutzeko ekimena abian

Gazteen arazoak eta beharrak zein diren jakiteko diagnostiko bat egingo du Abadiñoko Udalak

> ANE ELORDI

Herriko gazteen arazoak eta beharrak zein diren jakiteko diagnostiko bat egingo du Abadiñoko Udalak, gazteen lantaldeak sortuta. Egitasmoa 12 eta 30 urte bitarteko herriko gazteei dago zuzenduta. Gazteei gal-

Udaleko Gazteria arloko lana aurrera eramateko, datu horiek hartuko dituzte oinarritzat

detuz, haien egoera ezagutzea, eta datu horiek oinarri hartuta, Gazteria arloko lana aurrera eramatea da ekimen honen helburua, Ima Zapardiez zinegotziaren berbetan.

Adinaren arabera hiru talde sortuko dituzte: 12-17, 18-24 eta 25-30 urtekoenak. Euren alde zer egin beharko lukeen galde-tuko die udalak gazteei.

Aste honetan hasi dira lantaldeak biltzen, baina lehenago, hezkuntza eta aisialdi arloan lanean dabiltzan hainbat gazteri eta adituri iritzia eskatu diete.

Lurpeko aparkalekuaren egitasmoa alboratu dute

Abadiñoko Independentienteak taldeak jakitera eman duenez, 95 lagunek bakarrik agertu dute Traña-Matienan eraiki gura zuten lurpeko aparkalekuan plaza bat eskuratzeko interesa. Momentuz proiektua albo batera uztera eroan du eskari falta horrek udala.

Traña-Matienan 260 aparkaleku eraikitzea zen hasierako proiektua. "Aparkalekuen erdia baino gehiago hutsik geratuko direla jakinda, udalak ezin du eraikuntza lanetan hasi", dio gobernu taldeak.

Jose Luis Navarro alkateak esan duenez, "egoera ekonomikoa aldekoagoa dena arte, eta inbertsioak benetan errendagarritasun sozial handiagoko duenerarte" atzeratuko dute proiektu hori martxan jartzea. Aparkaleku faltari irtenbidea bilatzen jarraituko dute.

IURRETAKO HEZKUNTZA EREMUA

Olaburu auzunea IURRETA



2-12 urte



12-18 urte

MAIZTEGI
HH eta LH

OROBIOGOITIA
DBH eta Batxilergoa



94 681 09 37 MAIZTEGI
94 681 04 61 OROBIOGOITIA

Matrikula Epea:
urtarrilaren 28tik
otsailaren 8ra

- Gune egokia

- Jantokia eta garraioa

- Irakasle euskaldunak,
finkoak eta esperientziadunak

- Zuen seme-alabek euskaraz
egin ditzakete unibertsitate
aurreko ikasketa guztiak Iurretan



Egin harpidedun eta esan...

ONGI ETORRI!



Harpidedun egiteko 3 aukera dituzu:

1

anboto@anboto.org
helbidera idatzi.

2

946 681 65 58
telefonora deitu.

3

**Kupoia bete eta
bidali Anbotora:**
Bixente Kapanaga 9
48215 - IURRETA

Izena Abizenak

Telefona E-posta

Helbidea Herria

Zu zara  anboto !

 **12mila
BAIETZ!**

> DURANGALDEA ASTEON**Zengotitabengoa absolbitu egin dute epaitegiek**

ETAgaz kolaboratzea leporatzen zion fiskalak Luis Zengotitabengoa elorriarrari, baina Audientzia Nazionalako epaileek absolbitu egin dute. Haien ustez, fiskalak ez du frogatu ETAko kide biri bere pasaportea borondatez eman izana. Orain aste bi izan zen epaiketa.

Pedrosa Saria Carlos Iturgaitzi eman diote

Juan Jose Gaztañazatorreren eskutik jaso zuen Carlos Iturgaitzek Jesus Maria Pedrosa Saria. Alderdi Popularrean egindako eguneroko lanaren esker ona adierazi nahi izan zuten sariarekin. Iturgaitzek PPko euskal zinegotzi guztiei eskaini zien jasotako saria.

AHTko lanetarako sarrera Bernatik egitea gura du Iurretak

AHTko lanetarako, Betzuengo (Zornotza) biaduktura heltzeko ibilgailuetarako sarbidea Bernatik egitea proposatuko dio Iurretako Udalak Adif-eri, Bernako zubia egokituta. N-634ko gasolindegia-
ren aurrean (Iurretak) sarbide berria egitea "arriskutsuagoa" dela diote. Aho batez erabaki dute.

Antolamendua eztabaidagai Sortu alderdia eratzeko hirugarren batzarretan

Sortu eratzeko hirugarren batzarrek egingo dituzte bihar. Hauek dira zitak: Durango, 09:30ean, Ibaizabalena; Iurretak, 16:00etan, Ibarretxena; Eorrio, 10:00etan, Arriolana; Abadiño, 09:30ean, Txanportana; Berriz, 09:30ean, kultur etxe zaharrean; Zaldibar, 16:00etan, liburutegi zaharrean; Atxondo, 10:00etan, Arrazolako ludotekana; Otxandio, 09:00etan, gimnasioan. Gaur dira batzarrok Mañarian (19:00) eta Mallabian (22:00).

> IURRETA

Odi-Bakarreko langileek soldatei buruzko proposamena egin dute

2013an soldata jaisteko prest daude langileak, beti ere, diru hori bueltatuz gero

> AITZIBER BASAURI

Odi-Bakarreko langileak prest daude 2013an soldata jaisteko, beti ere, diru hori bueltatzen badiete. Proposamen bat ere aurkeztu du Langileen Komiteak (ELA, LAB eta Independienteak): peoiek %4 gutxiago kobratuko lukete; makinariak eta txandako arduradunek %6 eta %8 gutxiago, hurrenez hurren. Diru hori 2015ean berreskuratuko lukete ordainketa bitan. Bizpahiru hileroko egoera aztertzeke batzarrek

ere egingo lituzkete. Hor baloratuko lukete 2014an zer egin. *Anbotoren* edizio hau ixtean enpresaren erantzunaren zain zeuden. "Langileek euren lana mantendu gura dute, baina egoera zein

"Lana mantendu gura dute langileek, baina egoera zein den jakinda"

den jakinda. Proposamena orientagarria da, baina soldata jaistea kreditu lez ulertzen dugu", dio Komiteko ordezkari Xabi Rojok. Enpresaren egoeraz bat datoz: "Odi-Bakarrek likidez falta du epe laburrera, baina, epe ertain-luzera begira, ez luke arazorik". Akordioa lotuz gero, urtarrilaren 7an hasitako greba utziko lukete langileak. Laneko baldintzak batzen dituen barne-akordioa (2007koa) lan-itun lez sinatuko lukete gero.



Urtarrilaren 7tik greba mugagabea daude Odi-Bakarren. Igor Fernandez

> GARAI

Hainbat herritar, kaltetutako errepide zatiaren inguruan.

Goieritik herrigunerako bidean, lurjausia

Kotxeak auzoaren goiko aldean uzteko aholkua eman die udalak Goierriko auzotarrei

> M. O.

Goierri auzotik herrigunerantz doan errepidean lurjausia gertatu zen joan zen barikuan, azken egunetako denboralearen

eraginez. Bidea zabalik dago, baina kontuz ibiltzeko gomendioa eman du udalak. Gainera, kotxeak goiko aldean uzteko aholkua eman diete auzotarrei,

Gontzal Sarrigoitia alkateak azaldu duenez. Errepidea gehiago apurtuz gero, auzotik irten ezinik geratu ez daitezkeen zabaldu dute oharra udal arduradunek.

Errepidea udalaren eskumenekoa da, eta berak ordaindu beharko du konponketa. Sarrigoitiak adierazi du arkitektuak azterketa egin beharko duela lehenengo, eta ostean zehaztuko dutela zelan konpondu.



San Antonio-Santa Rita / Ikastetxea
/ Irakasleko Kooperatiba



Ate irekiak
Puertas abiertas

otsailak 1 de febrero
16:30 - 18:30

otik 16 urte arte

5 hizkuntza
idiomas

Aurrematrikula zabalik
urtarrilak 28 - otsailak 8
28 de enero - 8 de febrero

Balbino Garitaonandia, 3 DURANGO | Tif. 94.681.67.76 | Fax 94.681.41.61

www.sanantonio-santarita.com | ikastetxea@sanantonio-santarita.com

IÑIGO PEÑA ETA UNAI MAGDALENO | Berdeago egitasmoko kideak | Unibertsitateko ikasleak


“Jende asko dabil ingurumenaren alde apustu egiten, eta lan hori ez da ezagutarazten”

Asteburuan azoka berezia egongo da Landako Gunean: Berdeago. Ingurumen arloan lan egiten duten 30 enpresa inguruk parte hartuko dute, eta auto elektrikoak probatzeko aukera eta ludoteka egongo dira, besteak beste. Antolatzaileetako bi dira Peña eta Magdaleno

>AMAIA UGALDE

Mondragon Unibertsitatean Ekintzailetza eta Berrikuntza Lidergotza graduako ikasleak dira Iñigo Peña eta Unai Magdaleno. Zortzi pertsonako talde batean batuta, hainbat egitasmoko prestatzen dabiltza euren karreraren, enpresen mundura modu praktikoa batean hurreratzeko. Azken gaur eta bihar ipiniko dute martxan. Berdeago azokan, mugikortasuna eta energia berriztagarriak jorratzeko egitaraua prestatu dute.

Zelan sortu zen zuen taldean Berdeago antolatzeko ideia?

Iñigo Peña: Kotxe elektriko eta hibridoaren gaia lantzekotan ginen lehenengo, eta ideia aldatzen joan da: zer edo zer zabala goa egin behar genuela ikusi genuen.

Unai Magdaleno: Kontzientzia zioa garrantzitsua da birziklapenean eta energia berriztagarrietan, baina ez hori bakarrik. Etor-kizuna ere badela ikusten dugu. Geroago eta gehiago beharko da,

“

Azoka gehienak profesionalei bideratuta daude; edozein herritar erakartzeko moduko zerbait egin gura izan dugu guk”

“

Kotxe elektrikoak eta hibridoak ez dira ezagunak. Azokan horrelako ibilgailuak probatzeko aukera eskainiko dugu”

eta jendeak gaiaren gainean kuriositatea dauka.

I.P.: Konturatu gara, gainera, jendeak ez daukala informaziorik. Autoen gaian, esaterako, betiko joeretara jotzen dugu; oraindik ez dira ezagunak kotxe elektriko eta hibridoak. Horregatik, azokan horrelako ibilgailuak probatzeko aukera eskainiko dugu. Gauza bera gertatzen da, adibidez, etxebizitzaren munduan. Energia ziurtagiria daukate orain, garbigailuen moduan. Etxeak B kalifikazioa edo AAA+ eduki dezake, eta azken horregaz, urtean 500 euro inguru aurreztu ditzakezu, eta gutxiago kontsumitzen duzu. Aukera asko dago, eta ez dira behar beste ezagutarazten.

Informazioa emateaz gainera, azoka ludikoa izango dela nabarmendu duzue.

I.P.: Azoka askotara joan gara, eta ikusi dugu gehienak profesionalei bideratuta dardela. Aditu batek Peleteko kalderak ikusi, eta interesatu egingo zaio, baina edozein herritar

erakartzeko moduko zerbait egin gura genuen. Horregatik egongo da ibilgailuak probatzeko aukera, adibidez. Ludoteka handi bat ere egongo da, 70 metro karratukoa, ume eta nagusientzat. Gainera, Eider Eibarrekin mural handi bat marraztu gura dugu, Durangoko umeekin...

Azokan egongo diren egitasmoak aukeratzeko, zer irizpide izan duzue?

I.P.: Batez ere, mugikortasun eta energia berriztagarrien arloko egitasmoak egongo dira. Trafikoa kutsaduraren eragile handi bat dela ikusten dugu, eta energiaren gaia oso garrantzitsua da. Itzela da hemen zenbat zentral termiko dauden. Ahalik eta aukera gehienak erakutsi gura ditugu, posizio neutroagaz. Bakoitzak atera ditzala gero ondorioak. Ikas dezagun.

U.M.: Euskadi mailan, jende asko eta enpresa txiki asko dabil-tza ingurumenaren alde apustu egiten. Peleta, energia berriztagarriak... Eta ez ditugu ezagu-

tzen. Horiei bultzada txiki bat eman gura diegu, jendeak ikus dezan zer dagoen.

I.P.: Durangon, adibidez, badaukagu Bizibike kurtsoak ematen, eta bizikleta desberdinak saltzen. Azterlanek ere lan asko egiten du, eta Azterlanen barruko punta-puntako enpresa batek, Telurrek, geotermia lantzen du. Ura lur azpitik sartzen dute, eta ateratzerakoan bero dago. Horrela, elektrizitate gutxiago erabili behar da ura berotzeko.

Unibertsitateko karrera berezi honetan asko ikasiko duzue.

I.P.: Ba bai. Adibidez, talde-lanari buruz asko ikasi dugu. Ez dakigu taldean lan egiten, eta zentzu horretan asko ikasi dugu. Elkarrekin lan egitea, egunerokotasuneko haserreak... Finantziario arloan ere asko ikasi dugu. Azokan, ahalik eta gutxienez kontsumitzen eta gas-tatzen ahalegindu gara, berberabilpenaren bidez, esaterako. Gaiarekiko kontsekuente izaten saiatu gara, eta lortu dugu; azoka oso *low cost* da.



“Arrakasta eragileak DBHn”



LAUAXETA IKASTOLA

Lauaxeta ikastolan, Unitate Didaktiko Multidiziplinarrak lantzen ditugu UDIN lantaldeen bidez. Hala, eskolak eta arloak uzartuta, ikasleek eguneroko egoera bati irtenbidea eman behar diote, arlo ezberdinetan ikasitako guztia aplikatuta.

Zuek UDIN (Berrikuntza proiektua) taldeko kideak zarete, azaldu dezakezue zer den UDIN?

UDIN, Unitate Didaktiko Multidiziplinarrari deritzogu. Urtero eta maila bakoitzean –Lehen Hezkuntzan eta DBHn– proiektu multidiziplinar berriak sortzeaz eta aurretik sortutakoak hobetzeaz arduratzen den taldea da gurea. Proiektuon helburua ikasleak gizartearen agertzen diren egoera edo arazoaren ebazpenean trebatzea da, beti ere, ikasgaiak proiektuaren beraren zerbitzura daudela kontuan hartuta. Bi aste inguru iraute du proiektu bakoitzak, 60 ordu gutxi gora-behera.

Zein da proiektu honen bereizgarria?

Proiektu hauetarako gaurkotasunarekin eta arlo sozialarekin lotutako gaiak auke-

Irakaskuntza arlo ezberdinetan egituratzen bada ere, garrantzitsua da multidiziplinartasuna lantzea. Izan ere, ikasleak ikasitako guztia lotzeko, etadakienaz baliatuta, egoerabatzekoduen gaitasuna giltzarria da ikaslearen beraren autonomiarako, autoestimurako, eta azken finean, bere garapen pertsonalerako. Horretarako, ikasturtearen arabera proiektu multidiziplinarra garatu dugu



ratzen ditugu: immigrazioa, energia, etorkizuneko hiria, norberaren etorkizuna, etab; eta alde sozial hori abiapuntu legez hartuta, norbanakoaren garapen pertsonala bilatzen dugu konpetentziak lantuta.

Eta zer bilatzen du unitate didaktiko multidiziplinar

batek? Zer ekarpen egiten dio honek ikaslearen hezkuntza prozesuari?

Unitate multidiziplinar hauetan, proiektua da helburua, eta ikasgaietan ikasitakoa proiektu hori aurrera eramateko bidea; gure egunerokotasunean gertatzen den bezala, dakien guztia aplikatuz, egoera konkretu bati irtenbidea bilatzeko beharrezanean aurkitzen da ikaslea.

Planteatzen zaion egoeraren bidez, ikasleak esperientzia erreal bat bizi du, ikasitakoaren balioaz jabetzen da, eta egoera erreala den heinean, gaur egungo gizartearen errealitateaz eta hori hobetzeko duen gaitasunaz konturatzen da. Hau da, egoera horietan guztietan bi arlo nagusi lantzen ditugu: alde soziala eta honenganako kontribuzioa, eta norberaren garapen pertsonala. Baina ez di-

ra ikasleak proiektu honekin aberasten diren bakarrak, baita irakasleok ere. Gure kasuan, konpetentzien lantzean eta ebaluaketan hobekuntzak egiten joateko bide aparta izan da.

Unibertsitatearen batek ere egiten ditu horrelakoak, ezta?

Bai, Mondragon Unibertsitatean ere egiten dituzte, adibidez. Hain zuzen ere, Lauaxeta Ikastolako UDIN taldeko zenbait irakasle, Arrasatekoekin kontaktuan izan gara, gure proiektu propioak garatzeko.

“

Enpatia, sormena, adierazteko gaitasuna, autonomia, ikasten ikastea, talde-lana, erantzukizun soziala eta ekimena dira, besteak beste, ikasleek garatzen dituzten gaitasunak”

“**DBHn arrakasta izateko faktoreak**
Ate irekien jardunaldia”

2013/02/02 - 11:30ean

Izen-ematea:

<http://www.lauaxeta.net/index.php/es/matriculaciones>



Kultura

> ELKARRIZKETA

«Dantza egin gura zuen jende talde bat zegoelako etorri nintzen Durangora»

Mexikon jaio, eta Madril eta Sevillan bizi izandakoa da Carla Fernandez. Durangoko Dharananda yoga zentroan gorputz mugimendu tailerra eskainiko du

Zelan sortu da Dharananda zentroagaz kolaborazio hau mar-txan ipintzeko aukera?

Iaz neu hasi nintzen hemen entrenatzen, eta horrela ezagutu nuen zentroaren filosofia eta lan egiteko modua. Gorputzarekin egiten dudana bertan eskaini ahal izatea proposatu nien. Arte martzialak eta yoga eskaintzen dute Dharanandan, eta interesgarria iruditut zitzaidan adar artistiko hau eskaintzea. Gure lana egiteko espazio bat behar dugu dantzariok, eta behar ditugu hau bezalako lekuak.

Lehenengo aldia da hau bezalako tailer bat gidatuko duzuna?

Ez, izan ere, Durangora dantza egin gura zuen jende talde bat zegoelako etorri nintzen: dantzariak ziren asko, dantzan oso interes handia zuen jende talde bat zen. Ibaizabal ikastolan eskaini nuen lehenengo tailer hura. Horrela etorri nintzen Durangora bizitzera. Urte bi sorkuntzan buru-belarri egon ostean bueltatu naiz tailerrak eskaintzera.

Zer eskainiko dio tailerrak parte hartzen duenari?

Niretzako dantza zer den azalduko diet. Espero dut askotariko jendea etortzea, ez bakarrik lehenago dantza egin izan duena. Kuriositatea eta interesa duen oro dago gonbidatuta. Pena handia ematen dit jendea entzutea, “be-

“

Oso polita da ikastaroan dihardutenen gorputz eta buruak askatzen ikustea”

“

Urte bi sorkuntza lanean buru-belarri egon ostean bueltatu naiz tailerrak eskaintzera”

“

Ikastaroaren helburu nagusia ez da abilezia fisiko edo teknikoak lantzea”

ti izan dut gogoko baina...”, “nik ezingo nuke hori egin”... Ez noa abilezia fisiko edo teknikoak lantzera. Lehenengo gauza nahi izatea da, ausartzea gero, eta horretarako espazio bat edukitzea. Gorputzaren aukeren kontzientzia hartzea da helburua, eta hori era adierazkor eta kreatiboan erabiltzea.

Lortzen duzu jendea helburu horretaraino eroatea?

Bakoitzak bere mailatik ulertzen du eta eroaten du zerbait: jende guztia ez dago leku berean, bakoitzak gaitasun bat du garatuago... Baina, hala ere, baietz uste dut: Aretxabaletan dihardut Durangon eskainiko dudana lako ikastaro bat ematen, eta oso polita da gorputzak eta buruak askatzen ikustea.

Amaitutzat eman duzu ‘Barbara humana con cola’ ikuskizunaren ibilbidea?

Ez dut amaitutzat eman, baina behin ikuskizuna jaiota, geratzen dena horri zabalkundea ematea da. Eta gaur egun zabalkunde sareak dauden bezala, bestelako aukerak bilatu behar dira, ezinbestean.

Bestelako sorkuntza prozesuren batean diharduzu?

Bai. *Barbara, humana con cola* ikuskizunaren sorkuntza prozesuak idatzizko material asko sorrarazi zuen (gorputzari buruzko nire gogoetak, ikuskizunari buruzkoak...), eta testu horiekin eta Veronica Garcia lagun pintoreak nire lanaren gainean egin-dako 12 margolanekin liburu bat kaleratu gura dugu. Oso material aberatsa dago horretarako.

Sarri egiten duzu ikuskizuna sortu ahala idaztearena?

Beti egiten dut berbekin lan, egiten ari zarenaren beste dimentsio bat ematen dizu idazteak, eta asko idazten dut, oso gogoko dut idaztea. Urte biko sorkuntza prozesu hartan lau-bost koaderno bete nituen: dena jasotzen du erregistro dokumental horrek.



Andrés Gómez



Andrés Gómez



Andrés Gómez

Otsaileko lehenengo hiru zapatuetan, Dharanandan

Sevillan ikasi zuen Carla Fernandezek Arte Dramatikoa, eta eskola hartan erabaki zuen interpretazioaren alorretik barik, dantzaren eta gorputz adierazpenaren bidetik egingozuela aurrera.

Dantzak ekarri zuen Durangora, eta *Gorputz mugimendu dantza laborategia* tai-

ler intentsiboa eskainiko du bertako Dharananda Yoga Zentroan: lau orduko hiru saio izango dira, otsaileko lehenengo hiru zapatuetan.

Ariketa anatomikoagaz hasiko dira, buruaren, sorbaldaren, gerriaren, besoen zein hanka eta oinen mugimendua landuz. Eta sorkuntzari heldu-

ko diote ondoren. Horretarako, “beharrezkoa da aurreiritziak askatu eta buruari barik, gorputzari, desioari eta askatasunari begiratzea”, dio Fernandezek.

“Ez noa mugimendu hori egitera zatarra delako”, “hau ere zer ondo egiten duen, eta nik zer txarto”... Horrelakoek “gure gorputzarekin egotea eragozten digute”, uste du Fernandezek. “Jendea zelan doan gorputza askatzen ikustea da politena”, dio.

> LEHIAKETA

Karlos Martinez eta Ander Lauzirika aukeratu dituzte Injuve arte sariketan

Hogei artista gazteren lana saritu dute ikusentzunezko arteen lehiaketan. Durangaldekoak dira bi

> I.E.

Hogei artista gazteren lana saritu dute Injuve sarien Arte bisualen 20. edizioan. Ehundaka artistek aurkeztu dituzte euren lanak lehiaketara, eta Durangaldekoak dira sarituetaiko bi: Ander Lauzirika iurretarra, eta Carlos Martinez durangarra.

Espainiako Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren barneko Gazteen Injuve Institutuak antolatzen du sariaketa hori, eta 30 urtetik beherako artistei dago zuzenduta.

Gazteen sorkuntza bultzatzea eta euren obraren zabalkundean laguntzea du lehiaketak helburu. Horrela, joan zen domekara arte Madrilgo Tabacalera aretoko erakusketan egon dira hautaturiko lanak, eta Hego Ameriketara eroango dute erakusketa orain.


Madriken egon dira hautaturiko lanak erakusketan, eta Hego Ameriketara daramatzate orain

Karlos Martínezek 2009. urtean egindako *Oiz* dokumentazio lana da lehiaketan aukeratu dutenatariko bat. Duela 28 urte Oiz mendian gertaturiko hegazkin istripuari buruzko lana da Martinezena: garaiko informazioa eta argazkiak, gaur egungoak, etab. biltzen ditu.

Egilearen berbetan, historia-ren parte hori berregiteko saia-kera da lan horretakoa. “Bere garaigaz konprometitutako artista da Martinez, historian eta memorian interesa daukana”, dio erakusketaren txostenak.

Jorge Núñez de la Visitación santurtziarrak eta Ander Lauzirika iurretarrak 2010ean zuzenduriko *Cabudanni* ere aukeratu dute lehiaketan. Sortzaile biek asmatutako hizkuntza batean diharduen lagun talde bat da protagonista, teknologiaren (interneteko kableen) kontrako atentatu bat planifikatzen dabilena.

“Oso pozgarria da duela urte bi egindako lan batek denbora pasata saria jasotzea”, dio Lauzirikak. Orain arteko bidetik lan egiten jarraitzeko bultzada da Lauzirikarentzat saria: “Barne-tik ateratzen zaidana egiten jarraitzekoa”.



GEURE DURANGALDEA

AINHOA URIEN

Ikaslea



Olgetan

Letrak marraztea eta hitzak ahoskatzea ez da beti idazten eta irakurtzen jakitea. Jakintzak ezetza ere aitortzen du, ezjakintasuna jakingai bihurtzen denean. Honela bada, analfabetoak gara orokorrean. Letrak josten eta askatzen ikasten da umetan, eta gerora ahaztu egiten da jolasa, eta idaztea eta irakurtzea hutsaltasunera bideratzen dira. Eta hori ere bada analfabetismoa, hitzak eta letrak jolasik gabe elkartzea eta esatea.

Hitza jostatzeko da, eta ez da olgetatzat hartzen; zoritxarrez, ume izateari uzten zaionean jostaketan ibiltzeari uzten zaiolako. Eta jolas egitea akordu huts bihurtu orduko ahanzturan erortzen dira irakurtzea eta idaztea. Orduan haria eteten da eta tabuak tabuago bihurtzen dira. Errespeturik gabe azaltzen zaie haurrei errespetua dela hitzaren eta ekintzaren araua. Baina beste behin araua inertziaz hausten dugu, eta ez gara gai hitza jostailutzat hartuta norberaren letrak ez dituenarekin etengabe jolas egiteko. Gure artean politika tabu bat delako irauten du gatazkak hainbeste urtez, talka egiten duten emozio kontrajarriak barruan gordeztea ohikoegi bihurtu bailitzan. Egungo egoeraren inguruan hitz egitea saihesten dugu, larregitan egoera bera ukatuz. Beraz, analfabetismoa eta gatazka ez daude elkarrengandik hain urrun; analfabetismoa jolas bidez gaindituko da, eta gatazka alfabetatzea da konponbidea. Pedro Salinasek behin esan zuen: “No hay que seguir produciendo analfabetos que saben leer”, eta ezin gara isiltasunean bizi, ezin dugu itotzen gaituen soka gehiago estutu; eta batez ere, ezin dugu geure burua olgetarik gabeko bizitza batera kondenatu.

> ARTEA



Prado Museoko artelaneek inspiratuta

Madrilgo Prado Museoko artelaneen bertsioak daude Elorrioko Iturri kultur etxean ikusgai

> I.E.

Prado Museoan gordetako margolan ezagunen bertsioak biltzen ditu Iturri kultur etxean ikusgai dagoen erakusketak: hamabi artistaren lana dago hil amaiera-ra arte Elorrioko kultur etxean ikusgai. Besteak beste, Chillida, Barceló edo Saura margolarien lanak daude urtarrilaren 30era

arte, *El Museo del Prado visto por 12 artistas contemporáneos* erakusketan.

“Egungoa bezala, iraganeko artea bizirik dagoela” erakustea da bildumaren helburua: Prado Museoan gordeta dauden artelane eta museoak berak belaunaldi desberdinetako artistengan zelan eragiten duten islatzea.

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URTARRILAK 26 19:00etan
AIKO ERROMERIA
DANTZALDIA IBILTARIA. Doan.

URTARRILAK 31 20:00etan
KANTULAGUN
MULTIINSTRUMENTALA. Doan.

OTSAILAK 1 22:00etan
RAUL CIMAS eta JULIAN LOPEZ
20 euro bikoteko.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

AQUI VA A PASAR ALGO

Zanguango

Otsailak 2 • 20:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA



aisia

www.aisiahoteles.com
902 820 997

Aisia Lekeitio Hotela

Santa Elena etorb, z/g
Tel.: 94 684 26 55
lekeitio@aisiahoteles.com

Aisia Deba Hotela

Markiegi kalea, 6
Tel.: 943 60 80 52
deba@aisiahoteles.com

Maitemindu zaitez berriro Aisia Hotelean

Aisia hoteletan, txoko eta bazter guzti-guztiak dira gozatzeko eta erlaxatzeko

Badaude Aisia Hotelak definitzen dituzten kontzeptu batzuk, besteak beste, ingurumenarekiko errespetuz lan egitea, kalitatea eta produktua oinarri hartzen dituen gastronomia kreatiboa eskaintzea, eta hidroterapia osasunerako eta edertasunerako formula gisa hartzea.

Aisia Hoteletan, espazioek berezko izaera dute. Diseinu modernoa eta egun-goa dute hotel guztiek, eta gainera, leku pribilegiatuetan daude. Horrez gain, ezin ahaztu eskaintzen duten zerbitzu eta arreta profesionala.



Aisia Lekeitioko logela bat



Aisia Debako Talasoterapia



Mireya Azpiazu eta Edurne Horta, Aisia Deba eta Lekeitioko sukaldaritza arduradunak, hurrenez hurren.

Edurne Hortak, Aisia Lekeitio Hoteleko arduradunak, San Valentín egunerako prestatu duten proposamena azaldu du: "Aurten aukera originala eskaini nahi izan diegu bezeroei. Hartara, Panak, gure sukaldeko zuzendariak, Kantauri itsasoko marisko freskoz prestatutako menu berezia egin du. Jakina, menu hori itsasoari begira dastatzeko aukera izango dute bezeroek, eta une erromantiko bezain berezia bizi ahal izango dute".



**SAN VALENTIN EGUNEKO
MENU BEREZIA 25 euro**
(BEZ gabe)

Aperitiboa: antxoa eta fruitu gorrien koilaratxoa

Txangurroa Donostiako erara

Onddoz betetako poltsatxoa kalabaza-kremaren gainean

Zapo txiki errea sasoiko barazkien gainean

Zitrikozko sorbetea

Ahate-konfita patata errisolatuekin, fruitu gorrien saltsarekin

Txokolatezko eta laranja-zko brownniea mugurdi-izozkiarekin

Ura, ogia, ardo ondua

Kafea



**INAUTERIETAKO
MENU BEREZIA 25 euro**
(BEZ gabe)

Aperitiboa: azalore-krema mehea bere kurruskariarekin

Otarraixka-carpaccio zitrikozko olio-ozpinetan

Arroz krematsua sasoiko perretxikoekin

Lupia errea tomate eta albaka gainean

Zitrikozko sorbetea

Idi-tako belar finduna

Inauterietako torrada

Ura, ogia, ardo ondua eta kafea

Aplikagarria ostiral gauean, larunbat eguerdi eta gauean, eta igande eguerdian


BI BONO GASTRONOMIKO ZOZKETAN AISIA LEKEITIO HOTELEAN

Durangoko zein dantzarik irabazi zuen iaz Bizkaiko Aurreku Txapelketa?

ABENDUKO IRABAZLEAK: Iñigo López eta Jull Aiesta. **ZORIONAK!**

BIDALI ZURE ERANTZUNA:

astekaria@anboto.org-ra edo Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta helbidera



> LIBURU INTERAKTIBOA

Gartxot, ordenagailu eta iPad euskarrietan ere bai

Joan zen barikuan aurkeztu zuen Somugak 'Gartxot' liburu interaktiboa



> I.E.

Asisko Urmeneta marrazkilaria eta Edorta Barrieta idazlea 2011n argitaratu zuten *Gartxot, konkista aitzineko konkista* liburuan oinarrituta dago *Gartxot* liburu interaktiboa. Somuga ekoiztetxeak eta Elkar argitaletxeak joan zen barikuan aurkeztu zuten liburu interaktibo hori, eta egileen berbetan, paperezko edizioan espazio faltagatik kanpoan geratu zen materiala biltzen du: paperezko liburuan baino argazki

gehiago eskaini dituzte bertsio interaktiboan, eta bideoak, grafikak, mapak zein 3Dko animazioagaz egindako dekoratuak, besteak beste.

Apple Store denda birtualean eskuratu daiteke iPaderako *Gartxot*, eta Mac eta PC ordenagailuetarako ere jaitsi daiteke.

Gartxoten istorioagaz, gure herriaren historia kontatuko zuen film labur bat egin zuten 2008an, eta film luzea etorri zen ondoren. Barrieta eta Barrieta kontatu ziguenez, filma egiteko dokumentazio lan handia jendearekin elkarlanean egin zuten 2011n *Gartxot, konkista aitzineko konkista* liburuak. Liburutik kanpo geratutakoa batzera dator orain liburu interaktibo berria.

Filmak ere jarraitzen dio bere bideari: Hego Amerika, Europa eta Australiako zinemaldietarako hautatu dute *Gartxot, konkista aitzineko konkista*.

Apple Store denda birtualean eskuratu daiteke 'Gartxot'-en iPad-erako bertsioa

> ARGAZKIGINTZA

San Blas eguneko argazki onena aukeratzeko

> I.E.

Otsailaren 14ra arte izango dute argazkizaleek San Blas azokan egindako argazkiak lehiaketara aurkezteko aukera: Traña-Matienako Errota kultur etxean zein Mediatekan aurkeztu behar dira lanak.

Lehiaketan parte hartzeko baldintza nagusia, argazkia otsailaren 3ko Abadiñoko azokan egindakoa izatea da. Guztira, 800 euro eskainiko dizkie udalak epaimahaiak irabazle hautatzen dituen argazkilariei: 400 eurokoa da lehenengo saria, 250ekoa bigarrena, eta 150ekoa herriko argazkirik onenarena.

Otsailaren 20an, Zelaiaetako Txanpota kultur etxean egingo dute sari banaketa ekitaldia, eta lehiaketara aurkezturiko lan guztiak erakusketan bilduko dituzte, martxoaren 8 ra arte, Txanpota.

Iaz 52 argazki jaso zituzten lehiaketa honetan, eta Ivan Rodriguez durangarrak jaso zuen lehenengo saria.

> ZINEMA

Aktorerik onenaren Euskal Bobina saria: Eneko Sagardoy

'www.cinevasco.com' helbidean daukaten aktore profesionalen zerrendatik bisita gehien dauzkaten 5 aktore zeuden Euskal Bobina sarietan hautagaiak



> I.E.

Euskal zinemari buruzko *www.cinevasco.com* helbidean daukaten aktore profesionalen zerrendatik bisita gehien dauzkaten aktoreak ziren I. Euskal Bobina lehiaketako aktore onenaren saria jasotzeko hautagaiak: Eneko Sagardoy, Ander Barinaga-Rementeria, Jose Maria Ropero, Txema Perez eta Lander Otaola.

Eneko Sagardoy durangarrak jaso zuen bozka gehien, eta joan zen bariku eman zioten saria.

Sariagaz "oso gustura" dago Eneko Sagardoy: "Lanean jarraitzeko indarra ematen dizute honelakoak"

Antzerkira Durangoko Karrika taldearen bitartez hurreratu zen, eta iaztik ETBko Goenkale saioan dihardu Sagardoyk, eta sariagaz "oso gustura" dagoela aitortu du: "Lanean jarraitzeko indarra ematen dute".

Sari hau jasotzeko, bere lana gustuko duten zinezale eta lagun askoren bozka jaso zuen Eneko Sagardoy-k *www.cinevasco.com* webguneak antolatutako Euskal Bobinak lehiaketan, eta oso eskertuta agertu da.

> IKASTAROKAK

Historiari buruzko ikastaroak aukeran, 'Humanitates' zikloan

Otsailaren 3ra arte eman daiteke izena Durangoko Humanitates zikloko ikastaroetan

> I.E.

Martitzenean zabaldu zuten Durangoko Arte eta Historia Museoa eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen duten Humanitates ikastaroetan izena emateko epea: otsailaren 3ra arte apuntatu daiteke.

Arteari, filosofiari, musikari eta munduko historiari buruzko ikastaroak dira otsailean Durangoko Museoa hasiko direnak: aurreko ikastaroen jarraipena izango dira, eta gaztelaniaz eskainiko dituzte.

Hiru ikastaro hasiko dituzte, bestalde, apirilean: euskarazkoak, *Artearen historia hastapenak* eta *Munduen historia hastapenak*, eta *Euskal Herriko literaturaren historia*.

Arteari, filosofiari, musikari eta munduko historiari buruzko saioak izango dira otsailean

Durangoko Arte eta Historia Museoa eta Kuruzesantu Museoa egingo dituzte saioak, 19:00etan hasita guztiak. Ikastaroen egutegia eta informazio zabalagoa *www.durango-udala.net* helbidean eskaini dute antolatzaileek.

Durangoko Udaren webgunean daude ikastaroen egutegia eta informazio zabalagoa

Ikastaroen hartzaile bezala bakarrik ez, emaile moduan ere parte hartuko dute Durangaldeko adituek. Esaterako, otsailaren 14an, 21ean eta 28an, eta martxoaren 7an, Ander Berrojalbiz Durangoko musikariak eskainiko ditu biolinari buruzko saioak. Musika instrumentaren esanahi eta inspirazioez jardungo dute Berrojalbiz ikastaroan.



Aurrekontuak

Pozik gaude. Pozik oposiziotik bada ere, aurrekontuak kalera atera eta herritarren ekarpen eta iradokizunak jasotzeko asmoz prozesu parte-hartzaile bat martxan jarri dugulako.

Lehenik eta behin, eskerrak eman guregan konfiantza izan duzuen herritar guztiei. Askok izan zarete guregan konfiantza izan eta ekarpenak egin dituzuenok, kontuan izanda oraindik ere parte hartzeko ohiturarik ez dugula eta horrelako zerbait egiten den lehen aldia dela. 8 bilera egin ditugu eta *Egin dezagun Elorrio* ekimen honetan 80 pertsona baino gehiago hurbildu zarete, 40 galde-gegi inguru jaso ditugu, eta guztira, 350 bat ekarpen izan ditugu. Ekarpene asko errepikatu egiten dira, herritar askok behar eta gabeziaberdinak sentitzen dituzuelako, eta beste hainbat aurrekontuetan sartu ezin daitezkeen arren, urtean zehar bideratzen saiatuko gara. Pozik, gobernu taldea aurrekontu parte-hartzaileak egitera bultzatu dugulako. Oposiziotik horrelako zerbait lortzea ikaragarria delako.

Gure proposamen guztiak batzordeetan azaldu ondoren, gobernu taldeak ez du gure ekarpenetatik bat bera ere jaso eta emendakien egin behar izan ditugu udalbatzarrean bozkatzeko.

Beraien seriotasun falta ere itzela izan da. Irizpena egin aurreko egunean eman zizkiguten aurrekontu kuadratuak. Azaroan, 180.000 euroko deskuaidea zuen aurrekontu bat aurkeztu ziguten; abenduaren 10ean, oraindik 90.000 euro gehiago zituzten gastutan diru-sarreratan baino, eta azkenean, abenduaren 20an aurrekontu zirriborro koadratu bat aurkeztu ziguten gure proposamenetatik bat bera ere jasota ez zegoelarik. Eta hurrengo egunerako gure zuzenketak koadratuta egotea nahi zuten. Aurten aurrekontuetako akordioez gain, legengintzaldi osorako akordio bat nahi genuela esan genien. Legegintzaldi osoko gure herrirako proiektu nagusietan akordioetara heltzea nahi genuela, baina ez dugu PNVrengandik erantzunik jaso. Ez dute gurekin inolako akordiorik nahi. Pasa den urtean aurrekontuak onartu genituen akordio batera heldu ginelako. Ez dute akordio hori bete, ez dute beraien hitza bete, eta urtean zehar ez dute gurekin inolako adostasunik egin nahi izan. 2012 urtean gure bozkarekin gura dutena egin dute.

Beraiek aurrekontuak aurrera ateratzea baino ez dute nahi, eta horretarako dispartzioak presoen senideei ekartzen dien gastuari aurre egiteko ematen zaien diru atala kendu behar baldin badute, ez dute arazorik izan, eta hala egin dute. PPren abstentzioa lortzeko. Hor ikusten da PNVren jarrera. Beraien aurrekontua aurrera ateratzea baino ez dute nahi. Edozeren kontura, eta gu ez gaude prest. Ez dugu beraiek oposizioan egin duten gauza bera egingo. Denari baietz esatea ez da erantzukizunez jokatzeko. Gu oposizioan gaude. Ados gauden proiektuetan elkarrekin lan egiteko prest, baina herria kaltetuko duten proiektuetan oposizioa egingo dugu. Arrazoi nahikoa ditugu gure bozka kontrakoa izateko.

Gu pozik eta lasai gaude, gauzak egin behar diren moduan egin ditugulako. Kalera irten gara, herritarrek gure herrirako zer nahi duten entzun eta lehentasunak markatu ondoren, ekarpen hauek udaletxera eramane ditugu. Behin baino gehiagotan defendatu ditugu eta gure egin, baina gobernu taldeak ez ditu aintzat hartu. 19 proposamenetik 3 bakarrik onartu nahi zituzten. Azkenean udalbatzarrean gure proposamenak defendatu ondoren, 5 onartu ziren.

Zinegotzia izanik, kalean egon behar dugula uste dugu, herritar, eragile eta kolektiboengandik hurbil, eta guztiekin hartu-emanak izanez bereizketarik egin gabe. Udaletxean Elorrio eta bertako herritarrentzako lanean gabiltzalako. Elorrio denok osotzen dugulako.

Elorrioko Bildu

Abadiñoko Udala noraezean

Abadiñoko Independenteen populismo politikak herria noraezean daroa, berrirori ere lehentasunezkoak ez diren proiektuetan dirua xahutu eta lehentasunezkoak baztertu ditu eta.

Joan den urte bukaeran diru soberakin batzuk geratu ziren, eta bere talante demokratikoaren adierazgarri, udaleko gainontzeko alderdiekin adostu barik, nagusientzako hiru gimnasia gune egokitu zituen diru hori nonbait gastatu behar zela eta. Ez diogu nagusientzako gimnasia aparatua jartzea txarto dagoenik, baina horiek beste maila bateko lehentasunak dira, gure ustez, eta lehenengo, oinarritzako inbertitu beharko litzateke (Zelaietako haur eskola, laguntza sozialak, saneamendu sareak...) 40.000 euro horrela xahutu aurretik. Bestetik, Zelaietan farolak aldatu eta LED motakoak ipini dira. Egia da kontsumo energetiko jasangarri baten aldeko apustua egitea beti positiboa dela, baina 195.000 eurogatik farolak zentzu barik aldatzea gehiegizkoa da, eta beste inbertsio batzuetara bideratu zitezkeen. Gainera, udalak ez du inongo azterketarik egin zein izango litzatekeen, beti ere herritarren segurtasuna eta auzoaren argiztapen egoki bat bermatuz, kontsumo energetikoa murrizteko neurri ezberdinen artean aldatetarik egokiena; zer bonbilla mota erabili, argiaren intentsitate maila, farolen kokapena eta abar. Hori dela eta, hainbat gune beltz daude kaleetan, eta hainbat izan dira udaletxean kexa jarri dutenak.

Gure ustez, mota honetako politika populistekin jarraitzeko arrazoia, alde batetik eta larriena izango litzatekeena, gobernu taldeak herriko lehentasunak identifikatu gabe edukitzea da. Horregatik behin baino gehiagotan proposatu izan ditugu parte-hartze dinamikak eta auzo batzarrak, Udala auzo ezberdinetako herritarrekin egon, horiek dituzten beharrezkoak identifikatu eta lehentasunak finkatzeko. Baina Navarrok, bere jarrera presidentzialista berriro agerian utziz, badirudi ez duela herritarrekin batzartzeko asmorik eta bere (eta herritarren diru publikoaren kontura ordaintzen dituen aholkularien) kriterio propioaz baliatzea nahiago du herria entzutea baino, izugarri demokratikoa!

Bestetik, populismoa oinarritzat duela deritzogu, lehentasuna kale mailan udaletxea zerbaitetan dabilela erakustea duten proiektuei ematen dielako. “El movimiento se demuestra andando”, esan zuen behin Navarrok bere inspirazio egun horietako batean. Baina nora joan argi eduki ezean, hobeto geldi geratu eta nora joan nahi den pentsatzea, eta hori da gobernu talde honek ez dakiena, nora joan nahi duen. Larria benetan. Horregatik, gobernu talde hau kontrastez beteta dago dirurik ez dagoela esaten duenean. Orain dela hilabete batzuk, kultur eta kirol talde guztiak batu eta 2013. urterako murrizketak egongo zirela azaldu zitzaizen. Kirol eta kultur taldeak oinarritzakoak dira herri baten barne bizitzarako, eta beharrezkoa da alor horretan dagoen inbertsio ekonomikoa mantentzea, gainera ez da batere gastu handia.

Horrez gain, 2012ko aurrekontuetan ere oinarritzako gaietan (hezkuntza, euskara, ongizate soziala...) murrizketak egin zituen. Hori bai, alkateak bere 57.000 euroak lotsa barik poltsikoratzen jarraitzen du guztion eredu garri. 2013ko aurrekontuak ez dituzte aurkeztu oraindik, baina norabide berean jarraitzeko asmoa azaldu du, murrizketa gehiago eginez eta arlo kaltetuak betikoak izanez. Krisi egoera honen aitzakian murrizketaz baliatzeko eta eskuineko politikak aplikatzeko abagune bikaina iruditu zaie Navarro bezalako agintariei. Baina gastu soziala mantendu eta indartzeko, inoiz baino gehiago, momentu honetan herriak ezkerretik eraikitzea ezin bestekoa da.

Aitor Azueta, Saioa Zuazubizkar, Hiba Urrutia, Irakusne Gorospe, Maria Luisa Larrigan - Bildu Abadiño

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA

PSEE



Agur 2012, kaixo 2013

Urteari agur esatean, atzera begira jarri gara, eta 2012. urtea nolakoa izan den aztertzen dugu. Akordioak eta lan eginez aurrera atera ahal izan ditugun gauza onak ikusten ditugu, adibidez, Anbotorekin eta merkatariekin egindako hitzarmenak, langabeek udal-zergetan izango dituzten hobariak, eta obra garrantzitsu batzuk, hala nola tren lurperatzeko lanak. Horiek guztiak oso gauza onak izan dira durrangarrentzat. Alabaina, beste alde batetik, bide erdian egin gabe geratu diren gauza asko ikusten ditugu. Zehazki, hau da okerrera: EAJ/PNVk gutxietsi egiten dituela oposizioak udalbatzaren osoko bilkuran hartutako erabakiak, nahiz eta EAJ/PNV gutxiengoa izan eta oposizioa –hau da, ezkerrekoak– gehiengoa izan. Izan ere, EAJ/PNV oso interes gutxi du akordioak egiteko, eta ez ditu betetzen aurrez egindako akordioak.

2013. urteari kaixo esatean, urte honetako udalbatzaren lehen osoko bilkura izan da aste honetan, baina bilkurak ez du batere edukirik izan, ez onik ez txarririk. Udalbatzaren osoko bilkura horretan ez da aztergaririk egon. Gure ustez, EAJ/PNVk kudeatzeko duen ezintasunaren adierazgarri berria eta larria da hori. Ez dugu ulertzen zer dela-eta, oraingoa bezalako krisialdian, ez den ezer egiten, Udalak neurri asko hartu beharko bailituzke. Horrez gain, aurten ere EAJ/PNVk ez du aurrekontua garaiz aurkeztu.

Jarrera horrekin, hau da, aurrekontuaren zirriborroa aurkeztean, behin eta berriz atzeratuta ibiliz eta aurreko urteetan itxitako akordioak bete gabe utziz, alkateak berriro erakusten digu ez duela gaitasunik kudeatzeko eta ez duela interesik herriaren aldeko adostasunik lortzeko. Begi onez egin nahi diogu ongi etorria 2013. urteari, baina ez digute uzten.

Laguntzaileak:



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9 48215-Iurretak (Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa: 94 623 25 23
Publizitatea: 94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko urtarrilaren 25a
11. urtea - 486 zk.

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna, Aitor Lopez.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde, Ane Elordi.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzaileak: Goiatz Etxeita. Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Otsailak 7 · Eguena · 20:00etan · Plateruenean

Xabier Euskitzek Aizpea Goenaga

Otsailak 14 · Eguena · 20:00etan · Plateruenean

Ametz Arzallusek Alberto Iñurategi

Otsailak 21 · Eguena · 20:00etan · Plateruenean

Urko Aristik Iñaki Perurena

ELKARRIZKETAK BERTATIK BERTARA



Kirolak

> TXIRRINDULARITZA



Euskadiko Txapelketa lehiatzen zebilela erori eta mindu egin zuen eskumako belauna.

Murgoitiok ez du Munduko Txapelketan parte hartuko

Ez da belauneko lesiotik errekuperatu eta, gainera, minaren ondorioz oso gutxitan entrenatu ahal izan du: “Txarto joatekotan, nahiago dut ez joan”, dio

JOSEBA DERTEANO

Urtea hasi zenetik, Egoitz Murgoitiok (Hirumet taldea) arrastaka ekarri du eskumako belauneko lesioa, eta ondorioz, ez du otsaileko lehen asteburuan Louisvillen (Kentucky, AEB) jokatu den Munduko Ziklo-kros Txapelketan parte hartuko. Alde batetik, lesioa bera dago eta beste aldetik, lesioak ez diola Mun-

“Entrenamendu gogorrek eginda gaitza bada zerbait lortzea, zer esanik ez hiru-lau bider bakarrik entrenatu ostean”

duko Txapelketa behar den moduan prestatzen utzi: “Entrenamendu saio gogorrek eginda gaitza bada Munduko Txapelketan zerbait lortzea, zer esanik ez hiru astean hiru-lau bider bakarrik entrenatu ostean. Txarto joatekotan, nahiago dut ez joan”, adierazi du abadiñarrak.

Murgoitio Euskadiko txapelketan erori zen, iazko abendua-

ren 30ean. Harrezkero, eskumako belauneko belaunburuak ez dio bakerik eman. Espainiako txapelketan (urtarrilaren 13an, Asturiasen) bizikleta lepoan eta korrika egin beharreko tarteek mina areagotu zioten. Astebetzez gelditu egon eta pasa den domekan Benidormera joan zen entrenatzera. Martitzenean, hamar kilometro egin eta hotelera itzuli behar izan zuen minez. Hurrengo egunean erabaki zuen Munduko Txapelketara ez joatea.

Pablo Lastra joango da

Pablo Lastra taldekidea, osterara, joan joango da munduko txapelketara, eta 23 urtez azpiko mailan 25 onenen artean sailkatzea du helburu.

> TXIRRINDULARITZA

Isasi eta Hernandez urrea eskuratzeko lehian

Durungaldeko txirrindulariak irabazteko faborito dira Bizkaiko Txapelketako hainbat mailatan

> ANE ELORDI

Bizkaiko Txirrindularitza Federakundeak antolatutako txapelketan, emakumezkoak, kadeteak eta jubenilak lehiatuko dira pistean, bihar, 10:30etik aurrera, Berrizko belodromoan. Parte-hartzaileek hainbat proba egin beharko dituzte Bizkaiko Txapelketaren barruan.

Durungaldeko hainbat txirrindularik parte hartuko dute Bizkaiko Txapelketan, eta batez ere, *Challengean* dabilenak dira podiumera igotzeko faborito nagusiak.

Gazte mailan, Durangoko Beste Alde taldeko Beñat Unamuno eta Aritz Hernandez berriztarrek garaipena eskuratzeko aukerak dituzte. Kadete mailan, osterara, Elorrioko Gaurisa Renault taldeko Javier Coto durangarra da podiumera igotzeko faborito nagusia. Eta emakumezkoetan, Ziortza Isasi elorriarra, Iurretako CAF Transport Engineering taldeko txirrindularia, dago faboritoen artean. Guztiak borrokatuko dira urrea lortzeko, eta hainbat aukera dituzte.



Berrizko belodromoan lehiatuko dute Bizkaiko Txapelketa.

> TXIRRINDULARITZA

Argentinar bi fitxatu ditu Cafes Baque taldeak

> JOSEBA DERTEANO

Cafes Baque-Conservas Campos taldeak txirrindulari berri bi fitxatu ditu, biak argentinarrak: Julian Barrientos (1994an jaioa) eta Mariano Rodriguez (1993an jaioa). Barrientos Argentinako txapelduna izandakoa da errepidean eta erlojuz kontra. Iaz Arabako, Gipuzkoako eta Errioxako itzuliak irabazi zituen. David Etxebarria abadiñarrak zuzendutako taldeak hamahiru txirrindulari ditu gaur egun denboraldi berriari aurre egiteko.

> FUTBOLA

Kulturaleko kadeteek Athletic liderrari irabazi diote

> JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kultureko kadeteen taldeak garaipen handia lortu zuen joan zen asteburuan euskal ligako 17. jardunaldian. Oraindik galdu barik zegoen (hiru berdinketa eta 15 garaipen) Athletic Club taldeak bisitatu zuen Tabira, eta 3-0 irabazi zuten durangarrek. Kultureko gazteek bigarren zatian sartu zituzten hiru golak, baina partidua osoan izan ziren nagusi. Garaipen horren ostean bosgarren kokatu dira.

> SASKIBALOIA

Lehen itzulian dena irabazi du Anbotopekok

> JOSEBA DERTEANO

Lehenengo erregionalean lider sendoa da Durangoko Anbotopeko taldea. Lehen itzuliko 13 partidua irabazi ditu, eta horietako lautan 100 puntutik gora sartuta, gainera. Aguilas Salesianos 109-51 jipoitu zuten; Independiente Cruces, 104-43; Parque Bilbao, 109-45 eta joan zen asteburuan Ugeraga, 111-47. Batez beste, 95 puntu sartzen dituzte partiduko. Bigarren itzulia zapa-tuan hasiko dute etxean, Bidegintza Cespa taldearen aurka.

> **SASKIBALOIA**

Asteburuan, Mudanzas Alvaro Barakaldo taldearen aurka jokatu dute etxean. Kepa Aginako

Hamahiru titular eta kapitain ditu Julza-Zaldia taldeak

Bigarren erregionalean igoera postuan daude; jokalariek denek partidu guztietan jokatzen dute, eta titularrak bezain garrantzitsuak dira aulkikoak

JOSEBA DERTEANO

Liga amaitzeko zazpi jardunaldi-
ren faltan, Zaldibarko Julza-Zal-
dua saskibaloia taldea bigarren
erregionaleko igoera postuan
dago. Orain arte, bederatzi neur-
keta irabazi eta bi galdu dituzte,
eta hiru garaipeneko alde dute
hirugarren sailkatuarekiko.

Julza-Zaldia ez da izarrez eta
gregarioz osatutako taldea. Jose
Martin Garitaonandia entrena-
tzailaren esanetan, "denek du-
te maila ona, eta ez dago bat be-
stearen gainetik nabarmentzen
den inor". Gaur egun, 13 fitxa di-
tuzte eta hasierako boskoteko ti-
tularrak bezain garrantzitsuak
dira aulkikoak: "Lehen zatia
amaitu aurretik, jokalariek denek
jokatzen dute. Horrela, partidu
amaierara freskoago heltzen ga-
ra, eta pertsonalez ez hain kar-
gatuta. Gure aurkariak badaki-
te talde zabala eduki behar du-
tela guri aurre egiteko". Ez dute

kapitain finko bat ere. Txanda-
tu egiten dira, garrantzia talde
lanean dagoela azpimarratzeko.

Garitaonandiak talde osoa-

**"Gure hamahiru
jokalariek dute maila
ona, eta ez dago bat
bestearen gainetik
nabarmentzen den inor"**

**"Gutxienez hamabi
jokalariek beti etortzen dira
entrenamenduetara;
horrek asko esan gura
du niretzat"**

rengan duen konfiantza ez da
kasualitatea. Eguneroko lana-
gaz irabazi dute konfiantza ho-
ri: "Hamahiru fitxa baditugu,
gutxienez hamabi jokalariek beti
etortzen dira entrenamenduetara.
Horrek asko esan gura du ni-
retzat. Konpromisoa eta ilusioa
ikusten ditut".

Zazpitik bost etxean

Falta diren zazpi partiduetatik
bost etxean jokatu dituzte. Be-
raz, Zaldibarko neurketak au-
rrera ateratzea nahikoa izango
litzateke igoera lortzeko. Ondo-
ren, mailako multzo bietako au-
rrenetako biek elkarren kontra
jokatu dute, lehen lau sailka-
tuen ordena erabakitzeko. Bai-
na igo, lehenengo laurak igoko
dira, gutxienez.

Zapatu honetan, Julza-Zaldia
taldeak Mudanzas Alvaro Bara-
kaldo taldea hartuko du Zaldi-
barko kiroldegian.

> **PILOTA**

Atxondo eta Durango, finalean aurrez aurre pilotan

> **ANE ELORDI**

Asteburuan jokatu dira Du-
rangaldeko pilota txapelketa-
ko finalak Markinan. Guztira,
bederatzi final jokatu dira:
Durangok hirutan parte har-
tuko du, Zaldibarrek birri-
tan, eta Atxondok baten. Ba-
rikuan 18:30ean lehiatuko di-
ra Zaldibar eta Durango gaz-
te aurreko mailan. Nahiz eta
Zaldibar den garaipena es-
kuratzeko faborito, pronosti-
koak zabalik daude.

Zapatuko norgehiago-
ka ikusgarriena Gaztetxoak
A mailakoa izango da, eta
Atxondo eta Durango ibili-
ko dira buruz buru. Orain ar-
te, Atxondok ez du partidurik
galdu eta ligaxkan Duran-
go menderatu zuen. Hala ere,
Durangoko bikoteak ere mai-
la ona erakutsi du partidue-
tan, eta lehia borrokatua iza-
tea espero da.

> **ZIKLO-KROSA**

Hernandez erraz nagusitu zen Berrizko lasterketan

> **ANE ELORDI**

Pasa den asteburuan, Orbea
taldeko Aitor Hernandez er-
muarrak irabazi zuen Berri-
zen Bizkaiko Txapelketa. Be-
rrizko Ziklo-kros Sari Nagu-
sian Hernandezek egin zuen
denborarik onena (57.03) gizo-
nezkoen elite mailan. Aurrei-
kuspenak beteta, Euskadiko
eta Espainiako txapeldun ti-
tuluei Bizkaikoa gehitzea lor-
tu zuen Hernandezek. Nahiz
eta ibilbidea espero baino lo-
kazuago egon, erraz nagusi-
tu zen ermuarra. 23 urtez az-
piko gizonen elite mailan Hi-
rumet taldeko Jonathan Las-
trak lortu zuen Bizkaiko
txapela. Emakumeetan, Ei-
der Merino izan zen lehena
elite mailan.

ADITUAREN TXOKOA

**Ruben Perez**

Euskaltel-Euskadiko
txirrindularia

Txirrindulariak errespetatu

Tristea da segurtasun han-
diagoa eskatzeko mugikar-
tezen zerbait tragikoa ger-
tatu beharra. Gogoan izan
behar dugu duela hilabete
8.000 lagun batu ginela Iña-
kiren eta txirrindularien se-
gurtasunaren omenez.

Euskaltel-Euskadi taldea txi-
rrindularien ideiak batzen da-
bil bide segurtasuna hobetze-
ko, gero Aldundira eta Eusko
Jaurlaritzara bidaltzeko. Du-
rangaldeko txirrindulari pro-
fesionalen taldetxoan ere ida-
tzi bat prestatzen gabiltza, txi-
rrindularion segurtasunera-
ko baliabide falta kritikatzeko.

Asko gara Durangaldean bi-
zikleta zaleak, eta horrenbes-
te trafikoko errepideetan se-
guru ibiltzeko eskubidea es-
katu behar dugu. Gure segur-
tasunean inbertituko dutela
espero dugu, baina horrez gai-
nera, denon esku dago lehen
pauso erraz bat: zirkulazio
arauak errespetatzea; txirrin-
dulariak 1,5 metroko tartea-
rekin aurreratzea, eta abia-
dura mugak errespetatzea.

Hori gizarte arazo bat de-
la uste dut, azkarregi eta es-
tresatu bizi gara. Txirrin-
dulariok kirol osasuntsu eta
osasungarri bat praktikatze-
ra joaten gara errepidera, de-
sestresatu guran, haize pix-
ka bat hartu guran. Baina ez
da batere erraza izaten, irte-
ten zaren bakoitzean salbu
buelatutako ote zaren galde-
tzen diozu zure buruari eten-
gabe. Mesedez, errespetatu
ditzagun txirrindulariak.

**Erredakzioan itzulita*

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturrisa, 42 - 2. ezk. - Tel./Faxa: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - BERRIZ

RUEDA BILBAO ASEGURAK

Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 - Faxe: 94 681 65 77
e-maila: jrueda@segurosbilbao.com

OSASUN GIDA



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**



PEDAGOGIA

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

*Laguntza goiztiarra, Psikomotritzitatea,
Fisioterapia, Logopedia*

**Juan de Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO**

tel. 94 466 83 70 - 615 782



PSICOLOGIA

JON ARRUIBARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Ansietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

tel. 94 603 32 46 - 629 245



FISIOTERAPIA

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea,
behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO**

tel. 94 465 71 32 - 686 906 374



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

**Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO**

tel. 94 466 94 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

*Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin
eustea, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,
drenatze linfatikoa (masektomia ondoren),...*

**Iturriza, 44 - behe ezkerre
48240 BERRIZ**

tel. 94 622 55 93



PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA

Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

**Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO**

tel. 94 620 11 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA

*Kiropodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak*

**Monago Torre, 4 - behea
48200 DURANGO**

tel. 94 620 36 30



ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaedurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

*Obesitatea-zelulitisa,
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botox...*

**Txatxiena, 6
48200 DURANGO**

tel. 94 681 03 87



ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

**Muruetta Torre, 2 - C behea
48200 DURANGO**

tel. 94 681 99 51



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk
48200 DURANGO**

tel. 94 681 22 00



KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGIPUNTURA

**Komentu kalea 15
48200 DURANGO**

tel. 94 620 00 52

> FUTBOLA

Gora heltzeko sasoiz dabiltzala sinistu behar du Durangoko Kulturalak

Emaiza onen bidera itzuli dira, baina galdutako tartea berreskuratzeko, ezin dute hutsik egin



Asteburuan, azken sailkatua bisitatuko dute, Aurrera Vitoria. Kepa Aginako

JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kulturalak aurkitu du iparra. Lehenengo itzuliko azken txanpa negargarriaren ostean (puntu bakarra zazpi partidutan), lau norgehiagoka daramatza galdubarik: hirugaraien eta berdinketa bat. Ondorioz, berriro gora begira jarri dira, baina sasoiz ote dabilta? Liga hasieran eskainitako errendimenduak erakusten du taldeak badiela goian egoteko maila, baina lehenengo iritsi egin behar dute. Zalla laugarren sailkatua bederatzi puntura dago. Mikel Agirregomezkorta entrenatzaileak uste du, azken asteetako mailari eutsiz gero, posible dela “helburu garrantzitsuagoak” jomuga izatea. Hala ere, entrenatzaile denen antzera, zuhurtzia mezua ere utzi du: “Lehenengo mailari eusteko, 45 puntuak lortu behar ditugu”.

Defentsa lanean izandako hobekuntza da Kulturalaren erreakzioaren arrazoietakoa bat. Azken lau partiduetan gol bakarra jaso du, eta, Elgoibar eta Beasain menderatzeko, nahikoa izan dute gol bat sartzearekin. Bolada txarran zeudenean de-

fentsan egindako akatsak gogor ordaindu dituzte gerora: “Bermeoren kontra ez ginen ondo ibili, baina nire ustez, gainerako partiduetan ondo jokatu eta au-

Aurten hobeto dabilta Tabiratik kanpora, etxean arerioak atzean itxi egiten zaizkielako

kerak sortu genituen. Baina gola errazegi jasotzen genuen, eta horrela, gaitza da emaitza onak lortzea”.

Etiket kanpora emankorrango
Aurten, Durangoko Kulturalak emaitza hobeak lortu ditu Tabiratik urrun. Bost garaipen kanpoan eta hiru bakarrik etxean. Etxean jokatzeko dutenean, arerioak atzean gotortzen dira, kontraerasoa bilatuz eta taldeari gaitz egiten zaio amaraun defentsiboa apurtzea. Kanpoan, ostera, partidua joan-etorrikoak dira, Kulturalaren mesederako.

amaitu zuen brontzezko domina kolkoratuz. Gurutze Frades iurretarra zazpigarren sailkatu zen.

Gizonetan, Durango Kirol Klubak zilarra irabazi zuen taldekako sailkapenean. David Garcia Bizkaiko Txapelketa irabazi zuen, El Hassanb Oubaddiren atzetik bigarren tokian sailkatuz. Durangarraren jardunari, besteak beste, Ekaitz Kortazar, Gorka Bizkarra eta Mikel Zaballarena gehitu behar zaizkio. Oier Ariznabarretak parte hartu ahal izan balu (gaixorik zegoen) urrea lortzeko aukera handiak izango zituzten.

Gazteetan emaitza onak
Bidezabalek gazte mailako klub arteko urrezko domina irabazi zuen Garazi Lekunberri eta Leire Santamaria lehenengo bi postuetan sailkatu ondoren. Durango Kirol Kluba bigarren geratu zen maila berean, hein handian, Izaro Telleriaren (hirugarren) eta Eider Gorritxategiren (laugarren) lanari esker. Kadeeteetan Bidezabalgo Naroa Martinezek zilarra jantzi zuen eta Nerea Costak brontzea.

Domina horiei guztiei, Durango Kirol Klubeko Olatz Agirrebeitiak junior mailan lortutako zilarra gehitu behar zaie.

> KROSA

Durangaldean daude Bizkaiko kros talderik indartsuenak

Abadiñon jokaturako txapelketan eskualdeko talde biak nabarmendu dira



Durango Kirol Klubeko gizonen taldea bigarren geratu zen nagusien mailan.

JOSEBA DERTEANO

Durangaldea ondo hornituta dago krosek korrikalariei dago-kienez. Bidezabal Atletismo Klubak emakumeetan eta Durango Kirol Klubak gizonetan, edozein txapelketari berme osoz aurre egiteko taldeak dituztela erakutsi zuten, joan zen asteburuan

Bidezabalek Santutxuren hegemonia apurtu zuen emakumeen taldekako txapelketa irabazita

Abadiñon jokaturako Bizkaiko Kros Txapelketan.

Bidezabalek emakumeen taldekako txapelketa irabazi zuen, Santutxuk azken urteetan ezarritako hegemonia apurtuz. Lasterketa Iraia Garcia (Bizkaiko txapelduna) irabazi zuen, eta Belit Solar-ek hirugarren

> AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Iurretako-Somorrostro
· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

LEHENENGO ERREGIONALA

Zaldia-Umore Ona
· Domekan, 18:00etan, Solobarrian

BIGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi-Galea B
· Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Elorrio B-San Antonio
· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Mallabia-Lauburu Ibarra
· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko udal kiroldegian

EUSKAL LIGA

Sasikoa Durango-Lagun Onak
· Zapatuan, 19:45ean, Landako kiroldegian

MAILA GORENA

Sasikoa B-Unta Ibarreko
· Zapatuan, 15:30ean, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Gu Lagunak-Elorrioko B
· Zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Mendibeltz-Lagun Onak B
· Zapatuan, 17:15ean, Landako kiroldegian

Elorrioko C-Saltzaileak Hierros Maisa B
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

> SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILA (emakumeak)

Tabirako Baque-Univ. Deusto Loiola Indautxu
· Zapatuan, 19:00etan, Landakon

LEHENENGO ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako Baque-Ugeraga
· Zapatuan, 16:45ean, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Anbotopeko-Bidegintza Cespa
· Zapatuan, 18:00etan, Durangoko merkatu plazan

BIGARREN ERREGIONALA

Julza-Zaldia-Mudanzas Alvaro Barakaldo
· Zapatuan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian

> ERRUGBIA

TOPAKETAK

Benjamin aurrekoak eta benjaminak
· Zapatuan, 10:30ean, Durangoko Arripausuetan

Kimuak eta haur-kategoria
· Zapatuan, 10:30ean, Elorrioko errugbi zelaian

KADETE MAILA

D.R.T.-Gaztedi
· Zapatuan, 14:15ean, Arripausuetan

GAZTE MAILA

D.R.T.-Gaztedi
· Zapatuan, 15:30ean, Arripausuetan

EDERTASUN GIDA



Jon Sopelana

Iunik ileapaindegia dauka Durangon

Zer dago modan sasoi honetan?

Bueltan dator moda tradizionala edo 'retro' izenekoa: bolumena gorantz, laukitutako formak emanez. Ilea luzeetan oso luze, eta formagaz uhinak edo kizkurak aterata, mugimendua emanez.

Iuniken uneoro zabiltzate ideia eta joera berriak ezagutu guran...

Joan zen domekan Euskaldunan egon ginen Tony and Guy-ak buru-belarri lanean ikusten, eta euren maisutasunagaz inspiratu egin ginen. Edozelan ere, mota guztietako estiloak islatzeko prest gaude, batez ere, bezeroaren nahia errespetatuz.

Ilea lisatzeko eskaintza berezia daukazue.

Bai, deskontu interesgarriak dauzkagu. Emakume askok orraztu bako itxura ikusten du ilea liso eta leun ez badago. Horretarako, Aveda etxearen Smooth Infusion linea osoa daukagu.

6 AHOLKU

- 1** Buruazalak lehorte egiten dira, etxean berogailua ipinita luzaro egonda
- 2** Lehortutako buruazala hidratatu beharra dago, berriro oreka eta distira lortzeko
- 3** Hilean behin, trikologoak etortzen dira lunikera, eta debaldeko zerbitzua da
- 4** Estiloari buruzko gomendioak ematen ditugu, adostasuna bilatuta
- 5** Estilo tradizionala edo 'retro' izenekoa dago modan sasoi honetan
- 6** Ilea lisatzeko, Aveda etxearen Smooth Infusion linea osoa daukagu



ILEAPANDEGIAK



Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96



ESTETIKA ZENTROAK

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak eta enbulatoria

PRESTATU ZURE AZALA:

- Azido hialuronikoko tratamendua
- Zimurrak berehala betetzen ditu
- Hidratazio sakona
- Egunerako erredentsifikazioa
- Kolagenoaren estimulazioa

Lehen, 63 €
Oraín, 44 €
% 30 deskontua

Ikusi eta sentitu zure burua hobeto!

Goienkale 16-1. esk. • 48200 Durango
Tel.: 94 681 73 80 • Mug.: 639 375 474



Profesional onenak zure zerbitzura!

➤ Aisialdia

➤ **AUZORIK AUZO**



Iaz 200 parte-hartzaile batu ziren Auzorik auzo ibilaldian; orain urte bi, ostera, 300 bat lagunek parte hartu zuten ekimenean.

Abadiño auzorik auzo ezagutzeko aukera eskainiko du Hamabi Harrik domekan

Hamalau kilometroko ibilbidea prestatu du Gerediaga auzoko Hamabi Harri elkarteak; aurten zortzigarren aldia egingo du ibilaldiak, eta Salbadoreko ermitatik irtengo da domekan, 09:00etan

➤ JOSEBA DERTEANO

Birikak haize freskoz bete eta lagun giroan Abadiño tipi-tapa ezagutzeko aukera eskainiko du Gerediagako Hamabi Harri elkarteak domekan, 'Auzorik auzo' ibilaldiagaz. Aurten zortzigarren aldia egingo du ekimen honek, eta 14 kilometroko osteratxo izango da: Mendiola, Gaztelua eta Zelaieta auzoetan zehar joango da, besteak beste. Iazkoan, adibidez, 200 lagun inguru batu ziren eta aldiaren baten 300 laguneko kopurura ere heldu dira.


Domekan, 09:00etan hasiko dute ibilaldia, Gerediaga auzoko Salbadore ermitan. Aurretik, 08:45ean, sinatze ekitaldia egingo dute, eta parte-hartzaile guztien artean familia argazkia aterako dute. Salbadore ermitatik irten eta Ereña eta Erremoltxunetik San Fausto-

ra helduko dira. Handik Zelaietarantz hartuko dute, industrigunetik Astola auzora heldu eta handik Gazteluko ur depositora igotzeko. Bertatik, Abadiñoako kanposantura jaitsiko dira, eta Arrankurri aldera pasatu ostean, Artatik Santikurutzera joango dira lehenengo, eta Untzillara ondoren. Ibilbidea Txanporta plazan amaituko dute, 13:00 aldera, otordutxo batez.

Ibilbidean nobedade txikiak

Ibilbidea ia urteroko bera izango da, baina nobedaderen bat sartu dute: "Ibilbide berriak sortzea gaitza da, urtero leku berean irten eta amaitzen dugulako, baina saiatzen gara urterik urtera ibilbideari ukitu bat ematen, aldaketa txikien bidez", azaldu du Hamabi Harri elkarteak Jesus Mari Salterainek.

Esaterako aurten Untzillatik Mendilibarreko bidea hartuko dute zuzenean, Larringanerantz jo barik. Aurretik, Untzillako soziedadean salda banatuko dute hotzari aurre egin, indarberritu eta ibilbideko azken tarteari ekiteko.



Ibilbideko une bat.



Gerediaga auzoan zehar, ibilbidea hasi berritan.

IBILBIDEA

- 1 San Salbadore - **Irteera**
- 2 Ereña
- 3 San Fausto - Eitua
- 4 Lebario
- 5 Astola
- 6 Gaztelua
- 7 San Trokaz eliza - **Fruta**
- 8 Arrankurri (txaletak)
- 9 Arta
- 10 Santikurutz
- 11 Untzilla - **Salda**
- 12 Mendilibar
- 13 Txanporta - **Helmuga**

Ibilbidearen luzera 14 km

Hamabi Harrik antolatutako ibilaldiak 200 bat lagun batu zituen iaz

Txanporta plazan amaituko dute aurten ibilbidea otordutxo batekin

laguntzaileak



“Umeen ikasketa arazo askoren atzean ikusmen arazoak daude”

Begin terapia lantzen dute Landako Optikan; ikusmen abilezia indartuta, irakurmenean hobekuntza nabarmenak izaten dituzte



Sarritan, gaztetxoek egoki garatzen dute ahozko hizkuntza, baina hala ere, ikasteko edo irakurtzeko arazoak izaten dituzte. Kasu askotan, arazo horien atzean ikusmen arazo bat dago. Landako Optikan begin terapia landuz arazo horiek gainditzen laguntzen dute. “Ikasketak ikusmenarekin oso lotuta daude. Umeak ikasten duenaren %75etik %90era ikusmenaren bitartez heltzen zaio”, azaldu du Lourdes Arriabalaga optiko optometristak.

Ikusmen binokularra izatea, enfokatzeko gai izatea, begin mugimenduak zehatzak izatea eta ikusmenaren per-

tzepzioa ezaugarri garrantzitsuak dira ikasketetan zailtasunik ez izateko. Eskola porrotaren inguruko datuek ez dute zalantzarako tarterik uzten: aztertutako lau kasutatik hiritan eskola porrota ikusmenaren inguruko arazoaren ondorio da.

Seinaleak

Lehen Hezkuntzako bigarren mailan, umeak irakurtzen ikasten hasten direnean agertzen dira lehenengo seinaleak. Umea liburura gehiegi hurbiltzen bada, irakurtzerakoan edo idazterakoan burua gehiegi okertzen badu, begi bat tapatu edo okertzen badu hurbi-

leko lanetan, lauso edo bikoitz ikusten badu edo irakurtzen duena ez badu ulertzen, seinale argigarriak dira gurasoentzat ahalik eta arinen terapia bisualera jotzeko.

Begin terapia

Begin terapia optometriaren atal bat da, eta pertsonen ikus-

LH2n, umeak irakurtzen hasten direnean agertzen dira lehenengo zeinuak

men abileziak indartzeaz eta hobetzeaz arduratzen da.

Landako Optikako profesionalek begin azterketa egiten dute lehenik eta behin. Begin mugikortasuna, fusioa eta akomodazioa aztertzen dituzte. “Azterketa egin eta gero, tratamendu pertsonalizatuak ematen ditugu”, adierazi du Maider Llanos optikako arduradunak. Kasu gehienetan, gainera, arazoak konpondu egiten dira hiru hilabete inguruan astean egun batez optikan ariketak eginda eta etxean egiten den lanagaz. Ariketa horiek begi alferra eta estrabismoa konpontzeko ere balio dute.

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:

09:30etik - **13:00**etara

16:30etik - **20:00**etara

Zapatu goizetan.

HELBIDEA

Juan Mari Altuna, 22
Durango

KONTAKTUA

Tel.: **94 681 49 99**

landako.optika@gmail.com

ZERBITZUAK

Landako Optikak ohiko optika denda bateko zerbitzuez gainera, beste aukera batzuk eskaintzen dituzte. Durangon, berritzailea da optometriaren esparruan. Ikasteko arazoak prebenitzen eta tratatzen dituzte, ikusmen disfuntzioak aintzat hartuta.

Graduazioak, begin azterketa, umeen optometria, begin terapia, ukipen lenteak, tonometriak, topografiak, ikusmen urritasuna...



INMOBILIARIAK >

AMBOTO
INMOBILIARIA

San Agustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 35 62 • iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZAK ALOKAIKURUAN

DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarrekotxe etxebizitzak alokairuan.

MATIENA-ABADIÑO

- 3 logela, sukaldea, egongela-jangela eta 2 komun. 2 terraza.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- SAN INAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Igerilekuarekin.
- DURANGO: 2 logela, komuna eta egongela balkoiarekin. Ganbara eta garajea. Erdi berria. Prezio interesgarria.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 119.000€-tik AURRERA. EZ GALDU AUKERA HAU.
- 2 logelako apartamentua. Egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. 114.000€. Berriztatuko.
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Trastelekua eta garajea.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje ibxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarra, sukalde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abelebe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta frutarbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abelebea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitze aukerarekin.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitze 1.100 m2-ko lursaila salgai.

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe

Barrenkalea 15, behe • Tel./Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua eraikitzen.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab...
- ETXEBIZITZAK SALGAI
- ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3 logela, 2 komun eta egongelakoa.
- ANTSO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ANTSO EZTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatuko.
- ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
- ALLUITZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje ibxia.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, komuna eta 2/3 logela. Ganbara.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.
- ERROTARITXUENA: Estreinatuko. Halla, sukalde jantzia, logela bakarra edo 2 logela, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.
- GALLANDA: Estreinatuko. Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
- GALLANDA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J.de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- F.J.de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- GASTEIZ BIDEA: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- INTXAURRONDON: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
- IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trastelekua.
- JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- KALEBARRIA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Despentsa. (Guztiz berriztuta).
- KOMENTU KALEA: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz berriztuta eta erdi jantzia).
- KOMENTU KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantzia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
- KURUTZIAGA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Despentsa handia. Ganbara.
- LAUBIDETA: Halla, sukalde-jantzia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- MONTEBIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara. 150 m2.
- MURUETATORE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- ONITURRI: Halla, sukaldea, eskegitokia, sukaldea, 3 logela, egongela-jangela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- TXATXIENA: Halla, sukaldea, despentsa, egongela-jangela eta 3 logela. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komun bakarra edo 2 komun. Balkoia. Garajea aukeran eta trastelekua.
- SAN FAUSTO: Halla, sukalde-jangela, 2 logela eta komuna.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- TABIRA: Halla, egongela-jangela, logela, komuna eta eskegitokia.
- UNDA-TORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado

Askatasun etorbidea, 10 • 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 681 66 66
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ASKATASUN ETORBIDEA: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra, garajea, ganbara 185.000€ + bez
- 2 logela garajea eta ganbararekin 233.000€ + bez
- 3 logela garajea eta ganbararekin 290.000€ + bez
- EZKURDI: Estreinatuko. Viviendas de Vizcaya. 3 logela. Hainbat orientazio eta gainazal. Azkeneko etxebizitzak salgai. 268.000€-tik aurrera. Garajea eta ganbara.
- MARTXOAREN 8KO: erdi berria. 93 m2. Atikoa. 3 logela. 75 m2-ko terraza. Ikuspegi ederrak.
- MARTXOAREN 8KO: erdi berria. Beheko solairua 90m2-ko terrazarekin. 2 logela. Garaje ibxia.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 108m2. Erdi berria. 3 logela, egongela, sukaldea guztiz jantzia, 2 komun, garajea eta ganbara. Balkoi oso handia etxebizitza guztian zehar.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 83 m2. 3 logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Erdi berria.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 74 m2. EZINHOBIA. ETXE OSOAK KANPORA JOTZEN DU. 2 logela. Garajea eta ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 80 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi. Ganbara.
- ZABALE: 99m2. 4 logela, egongela, sukaldea eta eskegitokia. Balkoia eta garajea. Trastelekua aukeran.
- ZABALE: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, eskegitokia eta balkoia. Garajea eta ganbara. Etxe osoak kanpora jo du. Zatoz ikustera!
- SAN ROKE: 80 m2. 3 logela, egongela eta sukalde jantzia balkoiarekin. Beste balkoi bat hegoaldera. Ganbara handia. Guztiz berriztatua.
- HERRIKO GUDARIEN: 140 m2. 3 logela. 3 terraza. 2 komun. Garajea. Azkeneko solairua. Eguzkitsua. Ikuspegi politak.
